

# Trebiñu aldeko homonimia-kasu batzuk aztergai

ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRE\*

ATARIKO GISA\*\*

Antzinako toponimia nagusian noiz edo noiz aurkitzen diren homonimia-kasuek ezin ukatuzko interesa daukate lurralde batean bizi izandako gizataldeen historiaren alderdi linguistikoa ere ezagutze aldera, batik bat homonimo horiek hidronimoak direnean, jakina baita toponimiaren geruza zaharrenetakoa izan ohi dela kategoria hau. Izan ere, Francisco Villar-ek gogorarazten duenez, Hans Krahe-ren garaiko emaitzetatik aurrera, etimologia indoeuroparra duten toponimo prerromatarretan ugariak dira wasserwörteretatik eratorritakoak, era horretako ur-sustraien portzentajearen handia asbotxori harrigarria begitantzeraino.

Toponimia nagusiaren geruza historikoetan, ordea, kuantitatiboki gailentzen diren leku-izenak *nomina possessoris* erakoak izan ohi dira. Iberiar Penintsula kasu, maiz idoro daitezke jatorri erromatar, bisigodo edo arabiarrekoak baina, aitzitik, oso bakanak izaten dira indoeuroparrak diren geruza prehistorikoekin lotura dutenak<sup>1</sup>. Pentsatzekoa da hagiotoponimoek ere pre-

\* Filologoa.

\*\* Artikulu honek Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordearentzat egindako txosten bat du abiapuntu.

<sup>1</sup> VILLAR, Francisco (2000: 41): “[...] para que los ‘nomina possessoris’ tengan una relativa importancia en un estrato toponímico cualquiera se requieren determinadas condiciones políticas, sociales y económicas que no es probable que se dieran en etapas históricas remotas [...] Por otra parte, mientras que los nomina possessoris se aplican a territorios y predios, no suelen ser aplicados a los ríos por la naturaleza y características físicas de las corrientes de agua. Y sucede, que mientras que los cursos de agua tienden a conservar indefinidamente sus nombres, los ‘nomina possessoris’ pueden cambiar y de hecho cambian con bastante facilidad tan pronto como una guerra, invasión o conquista da lugar a un nuevo reparto de las tierras. Las probabilidades están pues en contra de que se hayan conservado nomina possessoris del II milenio a. C., aún en el caso hipotético de que entonces hubieran representado una proporción apreciable de la toponimia”.

sentzia zabala bide zutela garai prehistoriko haietako toponimia indoeuroparrean, baina basoak, ibaiak eta mendiak eurak jainko-jainkosak diren erlijio naturalistak izanik, ez da erraz bereizten toponimoaren jatorrian datzan hitza esanahi fisiko hutsekoa den ala, aldiz, espazio horrekin identifikatzen zen jainko-jainkosarekin lotu behar ote den<sup>2</sup>. Homonimiaz ari garelarik, ibaiei aplikatutako hagiotoponimo indoeuropar prehistoriko baten kasu paradigmatikoa dugu *Deba* izena ‘jainkosa’, esangura erlijioso garbia duelako.

Gurean, Gipuzkoako Deba herriari izena ematen dion erreka ospetsuaz gainera, Araban bertan *Debaz* osaturiko bi toponimo aurkitzen dira eta, M<sup>a</sup> Lourdes Albertosen aburuz<sup>3</sup>, hauek ere indoeuropar prehistorikoaren ‘jainkosa’ esanahia daukate. Toponimootako bat *Rideva* (< \**Riodeva*) da eta Antoñanan dokumentaturik dago 1724 urtean<sup>4</sup>. Gaur egun ere, bertakoen ahotan, bizirik dirau erreka bat iragaten den toki honen izenak<sup>5</sup>. Beste toponimoa *El Alto Deva* dugu eta Morillasen bildua du González Salazarrek<sup>6</sup>.

Jakina denez, *Deva* izena Iberiar Penintsularen geografian barrena hedatuta dago, batez ere iparraldean. Hona zerrenda, ikuspegi zabalagoa eduki dezagun:

- Kantabriako probintzian, Fuente De deritzan tokian sorleku duen erreka (796 urtetik aurrera dokumentaturik). Asturiasko *Ribadedeva* kontzejuan Kantabriarekin egiten du muga eta itsasora isurtzen da *Tina Mayor* itsasadarra eginez.
- Covadongako mendilerroan jaiotzen den erreka izena da *Deva*. Covadonga errekaekin batzen da Cangas de Onis kontzejuan.
- *Piles* errekaen ibaiadarrak ere *Deva* izena du, Xixongo kontzejuan. Erdi Aroan izena eman zion *San Salvador de Deva* monasterioari.
- Kostaldetik gertuko uhartetxo bat da *Deva*, Asturiasen, *Nalón* erreka-aren bokalearen ekialdean.
- Galizia aldean bada besterik: Pontevedran Miño erreka *Deva* izeneko bi ibaiadar dauzka, bata Ourensen (1199 urtetik dokumentatua) eta bestea Pontevedran.
- Teruelen, *Riodeva* toponimoa dago erreka bat jaiotzen den tokian.
- Pontevedrako probintzian *Portela Deva* mendatea, Petán eta Prado bitartean; eta Portugalen *Portela de Deva* (1059an lehenengoz dokumentatua), Sobradelo de Gomako eskualdean, Bragan. Lugoko probintzian ere toponimo gisa dago. Hauek guztiak jatorriz hidronimoak dirateke.

Hitz honen jatorri zeltikoa defendatu izan dute Tovar, Hubschmid eta Pokorny bezalako egileek. Martín Sevillak<sup>7</sup> uste berari eusten dio eta antzi-

<sup>2</sup> *Ibidem*, 41-42 or.

<sup>3</sup> ALBERTOS, M<sup>a</sup> Lourdes (1970: 196-197)

<sup>4</sup> LÓPEZ DE GUERENU, Gerardo (1989: 415)

<sup>5</sup> GONZÁLEZ SALAZAR, José Antonio (1986: 63)

<sup>6</sup> GONZÁLEZ SALAZAR, José Antonio (1989: 123)

<sup>7</sup> SEVILLA RODRÍGUEZ, Martín (1980: 45-46): “*Dēvā*, ‘diosa’ o ‘divina’. Palabra céltica testimoniada en época antigua como antropónimo y como hidrónimo. Como antropónimo aparece en inscripciones de Galia, Britannia y Germania, como hidrónimo aparece documentada en Ptolomeo y en los antiguos itinerarios geográficos referida a ríos de España, País de Gales e Irlanda. La forma céltica *Dēvā*, ‘diosa’ está relacionada con otras ya más tardías en antiguo irlandés *día*, antiguo galés *duiu-*, antiguo cornoico *duy* ‘dios’, etc., así como emparentada en otras lenguas indoeuropeas con formas como latín *deus*, sánscrito *dēvā-h* ‘dios’, etc. Diversos autores han postulado para los hidrónimos *Deva* hispánicos un origen céltico, relacionando la designación de *dēvā*, ‘diosa’ a corrientes fluviales con un culto de los celtas a las fuentes, arroyos y ríos, a los que divinizaban”.

natean antroponimo bezala agertzen dela gogoraraziz, bai Galiako, Britaniako eta Germaniako idazkUNETAN bai, hidronimo gisa, Ptolomeon eta Espainiako, Galesko eta Irlandako errekek aipatzen diren ibilbide geografiko zaharretan. Francisco Villarrek, ordea, ikusmolde zaharkitua irizten dio honi eta uste du ideia hau zeltak Iberiar Penintsulako indoeuropar prerromatar bakarrak izan direneko iritzi faltsuaren zordun dela eta, finean, izen horrek zeltierazkoa zertan izan ez duela baieztatzen du<sup>8</sup>.

Homonimia-kasuak, jakina, homofonia hutsak izan daitezke, hots, izen bera eduki arren lotura etimologikorik batere eduki ez. Agian era honetakoa dugu Asturiasko Salas kontzejuko *Álava* hidronimoa, Arabako lurraldearen izenkide<sup>9</sup>. Monografia historikoen arabera<sup>10</sup>, Araba lurralde-izenaren lehenbiziko agerpen idatzia 937 urtekoa da: “*Facta carta era DCCC<sup>a</sup>. LX(X)<sup>a</sup>, kalendas decembris, regnante Regimiro in Legione, et comite Fredinando Gondissalviz in Castella et in Alava*”<sup>11</sup>.

Gatozen, gure esparru geografiko hurbilean ere, Juan Antonio Quirósek<sup>12</sup> ondorioztatu duenez, gehienbat VIII mendearen hasieran sortutako herrien sarean noiz edo noiz gertatzen diren homonimoetara. Hauek ere lagungarri izan daitezke gizataldeen behialako joan-etorri demografikoak ezagutarazten, areago garai historiko horietako dokumentu-iturriak gutxi eta laburrak izaten direlarik. Arabako mendebaldeko kasu bat hautatuko dugu: *Oliván* herria, 1025 urteko dokumentuan *Olibani* dokumentaturik dagoena. Aspaldian desagertua bada ere, oraindik ere *Oliván* esaten diote Leciñana del Caminoko, Molinillako eta Salcedoko bizilagunek herri hori kokatzen zen tokiari. Gainera, Molinillakoek bertan gaztelu edo herriren bat izan den gomuta gorde izan dute belaunaldiz belaunaldi. Toponimo honen baitan antroponimo bat dago, Joan Corominasek<sup>13</sup> argitu duenez, eta, pertsonaizena den aldetik, ulertzekoa da geografian barrena han-hemenka homonimorik aurkitzea. Hor daude, esaterako, Pirinio aldean, Huescako Biescas

<sup>8</sup> VILLAR, Francisco, *op. cit.*, 41 or.: “[...] como los ríos Deva, que tradicionalmente se atribuyen a los celtas, dada la concepción antigua de que los celtas fueron los únicos indoeuropeos prerromanos en la Península. Sin embargo nada obliga a pensar que los hidrónimos Deva sean efectivamente de origen celta, si no es precisamente la citada concepción. En efecto, en el ámbito de otros pueblos europeos esa misma raíz (\*deiwo- ‘luminoso > celestial > divino’) ha dado igualmente lugar a hidrónimos. Por ejemplo en la toponimia de Lituania tenemos *Du* (-upis), y en la indo-irania *Devakas*, entre otros”.

<sup>9</sup> SEVILLA RODRÍGUEZ, Martín, *op. cit.*, 28 or.: “*Álava*. Lugar de la parroquia de su mismo nombre, en el concejo de Salas. Próximo a él corre un arroyo del mismo nombre que desemboca en la margen izquierda del río Narcea [...] El topónimo asturiano *Álava* aparece en la documentación medieval con esta misma forma”.

<sup>10</sup> LIBANO ZUMALACÁRREGUI, Angeles (2004): “[...] leemos en las monografías históricas que en el siglo XI el nombre de Guipúzcoa aparece por primera vez documentado en la historia; en el año 1051 figura Iñigo López como ‘conde’ de Vizcaya, mientras que en el siglo X el nombre del territorio alavés [...]”.

<sup>11</sup> UBIETO, Antonio (1976: 24 dok.)

<sup>12</sup> QUIRÓS CASTILLO, Juan Antonio (2006): “El siglo VIII representa una verdadera cesura en la historia del mundo rural alavés [...] A partir del siglo VIII vemos cómo los espacios ‘marginales’ y periféricos se abandonan o se transforman y se crean nuevos marcos de sociabilidad aldeana que, con notables cambios, han llegado hasta nuestros días. No obstante, hay que señalar que algunos arqueólogos han señalado la existencia de una continuidad entre las ocupaciones romanas y medievales en el territorio alavés [...] Desde nuestro punto de vista es absolutamente necesario diferenciar la continuidad de ocupación espacial de la continuidad social y de las formas de explotación del territorio. Asimismo, hay que señalar que en ningún yacimiento excavado en la actualidad en todo el territorio alavés se ha podido demostrar la existencia de esta continuidad ocupacional (salvo quizás el ‘castellum’ de Buradón)”.

<sup>13</sup> COROMINES, Joan (1971: 251): “Siguiendo su evolución fonética normal, OLIPANDUS tenía que pasar a *Olipán(o)* > *Olibán*, así en catalán y languedociano meridional como en aragonés del NE. En efecto, *Olibán* es nombre de persona muy frecuente en Aragón, [...]”.

inguruko herria eta, gugandik hurbilago, Errioxako Leza ibaiaren arroan zegoen herri hustua. Deigarria da, ordea, Aragoiko eta Kataluniako berezko bilakaera fonetikotzat hartua den *Oliván* toponimoa gurean topatzea. Lehenengo aukera –guztietan *a priori* simpleena– arabar toponimo hau antroponimoaren zabalkunde geografikoarekin lotzea litzateke, baina Arabaren inguruko kartularioetan ez dirudi gizonezko-izen horren lekukotasunik dagoenik. Horrela balitz, aragoiar jendearen mugimendu-demografikoren batekin esplikatu liteke? Dauzkagun datuekin ezin ondorio sendorik osatu.

Bestalde, batzuetan herrien arteko homonimiak nahasgarri izan dira euren identifikaziorako, areago historian zehar herri horietako bat hustu eta desgertzera ailegatu denean. Zirkunstantzia honek errakuntzak eragin ditu zenbait aldiz historiagileen lanetan, neurri handiagoko edo txikiagoko akatsak sortuz. Datozen orrialdeetan horrelako kasu batzuk aletuko ditut. Jasota dauden guztiak Trebiñu aldeko herriak dira, eta inguruko lurraldeetan izen bereko herriak dauzkatenak, baina ez daude diren guztiak, ezezagunen irizitako homonimotara mugatu dudalako lana. Beraz, Armentia, Bustu, Faidu eta Uzkie, besteak beste, orrialde-sorta honetatik kanpora geratu dira oraingoa.

## TREBIÑU

*Trebiñu* toponimoak forma homonimoak dauzka han-hemen. Esaterako, Burgosko Villadiego inguruan, baita Kantabriako Potesko barrutian, Koruñako Vimianzoko udalerrian eta Huescan, Somontano de Barbaastro eskualdean, Adahuesca herriko *Nuestra Señora de Treviño* izeneko ermitan ere. Guztiarekin ere, lauretan lehenengoa da, lurrez zabalena eta gugandik gertukoena izaki, Euskal Herriko Trebiñurekin nahasterik eragin duena.

Izan ere, Burgosko eskualde hori nahiko zabala zen Erdi Aroan eta Villadiego, Castrojeriz eta Amaya herrien mugen barruan zegokeen<sup>14</sup>. Justo Pérez de Urbelen iritziz, eskualde horren izenak kantabriar, vaccear eta turmodigoarren mugei erreferentzia egiten die. Nahasbide honetaz zegoeneko ohartarazi zuen Landazurik XVIII mendearen bukaeran idatzi arren 1921era arte argia ikusi ez zuen *Treviño Ilustrado* izeneko lantxoan<sup>15</sup>. Guztiarekin ere,

<sup>14</sup> ESTEPA DíEZ, Carlos (1984: 27-28): “En 1124 se habla de la terra de Trevinio, y por estas fechas una serie de poblaciones son ‘ubicadas in Trevinio, scilicet in suburbio de Villa Didaco’, lo cual puede hacer pensar que dentro del más amplio territorio de Villadiego se encontraba el de Treviño, más si observamos en otro diploma de 1085 una delimitación entre Castrojeriz y Treviño, constituyendo así este último la parte sur de Villadiego; pero hay otros testimonios contradictorios: la situación de las localidades expresadas en 1124, así como de otras mencionadas en 1184 también como ‘in Trevinno’ hace difícil concretar tal demarcación, apareciendo más bien como algo extenso, a veces sumamente inmerso en las otras circunscripciones, y a ello hay que añadir la ubicación de Villamayor de Treviño (donde se hallaba el monasterio de San Miguel) en 1203 ‘in territorio de Amaya’. Más bien parece, por tanto, que se trataba de una comarca relativamente extensa, que desde el punto de vista de las demarcaciones correspondía a los alfores de Villadiego, Castrojeriz y Amaya”.

<sup>15</sup> LANDÁZURI, Joaquín José de (1921: 10-11): “Para precaver el reparo que pudiera ofrecerse a los que no tienen la mayor instrucción en la Geografía e Historia antigua de la Nación, se hace preciso el advertir a consecuencia de lo dicho, que este dictado de *Ibida, Uda y Ayuda* que se dio en los documentos e historiadores antiguos a nuestro Condado de Treviño, fue el medio por el cual se distinguió y dio a conocer su territorio como cosa distinta del que tuvo este mismo nombre de Treviño en el privativo de Castilla. Desde el siglo X consta de la historia de la Nación haber en ella un territorio con el nombre de Treviño en la diócesis de Burgos, pues en la escritura de los votos a San Millán por el conde Fernán González [...] se hace expresión entre los contribuyentes al voto en la parte de Castilla según el método con que se hace la enumeración de los pueblos, de Villadiego con todo Treviño. Esta población de Villadiego, que era parte de Treviño de Castilla, corresponde a la Diócesis de Burgos”.

esan bezala, noiz edo noiz izan da gaizkiulerturik. Esaterako, Angeles Libanok Euskal Herriko Erdi Aroko toponimoen bilduman bi lekukotasun jasoak ditu, biak testigu gisa diharduten pertsonen deiturak. Dokumentuen kartularioak zein diren ikusita, Trebiñuren ingurune geo-politiko historikotik zeharo kanpokoak, zalantza gabe jatorriz Burgosko *Treviñori* dagozkio, eta ez Euskal Herrikoari. Lehenbiziko lekukotasuna Burgos hiriko elizari egin-dako donazioa da, 1193 urtekoa: “*Huius rei testes sunt: [...]; Iohannes de Treuino*” (iturria honakoa da: Garrido, José M<sup>a</sup> (1983): *Documentación de la Catedral de Burgos (1184-1222)*). Beste lekukotasuna 1194 urtekoa da, Oñako monasterioarena: “*Rudericus Petri de Treuino; Don Pardo, testis*” (iturria hau da: Oceaña, I. (1983 eta 1986): *Documentación del Monasterio de San Salvador de Oña*).

M<sup>a</sup> Lourdes Albertosek ere akats bera egiten duelakoan nago, Trebiñuren estreinako lekukotasun moduan 934 urtea aipatzen duenean<sup>16</sup>. Urte hori berori da Fernán González kondearen Botoa deritzan faltsutze ezagunak daraman data, nahiz eta, jakina denez, dokumentua 1140-1143 urteen bitartean faltsutua izan. Aipatutako dokumentuaren arabera, Gaztelako konde horrek Donemiliagako monasterioari ematen dio bere konderriko herri eta eskualde guztietan zerga bat jasotzea, eta *Tribinio* dakar *Villa Didaco* (> *Villadiego*) ostean: “[...] *Ovirnia, riu de Ulbere, Villa Didaco, cum tota Tribinio, Castro [...]*”<sup>17</sup>. Honenbestez, ez du, itxurak itxura, zerikusirik bate-re Arabako Trebiñurekin.

Bide batez esanda, *Trifinium* etimoaren esanahiaz dihardunean, M<sup>a</sup> Lourdes Albertosek<sup>18</sup> baieztapen deigarri bat egiten du aipaturiko lanean. Julio Caro Baroja<sup>19</sup> eta Claudio Sánchez Albornoz<sup>20</sup> egileen ustearen kontra, barduliar eta karistiar leinuekin batera beroiak jartzen ditu, autrigoien orde, Trebiñun mugakide, baina horretarako inolako argudiorik emateke.

## MEANA

Latinaren *mediana* etimoan<sup>21</sup> jatorria duen Trebiñu aldeko Meana herriak homonimoak dauzka Euskal Herritik kanpora. Esaterako, Koruñan Meana herria dago. Hala ere, askozaz hurrago, Araban bertan, bada izen bereko herri hustu bat, Gasteizko mendien ipar-isurialdean kokatua zego-

<sup>16</sup> ALBERTOS, M<sup>a</sup> Lourdes, *op. cit.*, 215 or.

<sup>17</sup> UBIETO ARTETA, Antonio, *op. cit.*, 22 dok.

<sup>18</sup> ALBERTOS, M<sup>a</sup> Lourdes, *op. cit.*, 215 or.: “934, *Trevinio* [...] Este es otro topónimo típico de origen romano. Su base es *Trifinium*, y correspondía, al parecer, a la zona de encuentro de las tribus de *Várdulos*, *Caristios* y *Berones* [...]”.

<sup>19</sup> CARO BAROJA, Julio (1945: 117-118): “[...] la villa de *Treviño* fue fundada en un término en el que en época muy anterior confinaban tres unidades sociales de importancia: las de los *várdulos*, *caristios* y *autrigones* de que habla Ptolomeo”.

<sup>20</sup> SÁNCHEZ ALBORNOZ, Claudio (1976: 22): “[...] hasta llegar a los montes del Condado de *Treviño*, cuyo probable nombre antiguo, *Trifinium*, indica a las claras la coincidencia de tres límites, acaso de las rayas de *várdulos*, *caristios* y *autrigones*”.

<sup>21</sup> ALBERTOS, M<sup>a</sup> Luisa, *op. cit.*, 107-223 or.: “*Meana* (en 1025 *Meiana*), despoblado en Vitoria [...] Todos estos topónimos tienen su origen en ‘*mediana*’, en unos con la caída de la -d- intervocálica. Vid. las formas intermedias *Meiana*, *Meyana*, con ulterior desaparición también de -i-, en otros con todo conservado. Acaso estos sean más recientes y sean ya plenamente castellanos [...] *Meana*, *Villameana*, etc., son topónimos corrientes en varias regiones”.

ena, Mendiola eta Gaztelu herrien artean. Gaur egun ere bizirik dirau toponimo horrek<sup>22</sup>.

Homonimia-kasu horrek César González Mínguez nahastu izan du, Trebiñu aldeko *Meana* Gasteizko kontzejupeko herrien artean kokatua baitu bere lan batean. Izan ere, 1332ko otsailean *Juan Martínez de Leivak*, Alfonso XI.aren Kamarero Nagusiak, Gasteizko kontzejuaren eta Arriagako Kofradiaren arteko auzian emandako epaian Gasteizko hiribilduak bereganatuak zeuzkan berrogeita bost herrietatik lau Kofradiari itzultzea erabaki zuen, gainerakoak Gasteizen eskura utzirik: “[...] *de las cuarenta y cinco aldeas solo cuatro quedaban para la Cofradía, en tanto que las cuarenta y una restantes [...], Berrostequieta, Meana, Monasterioguren, [...] quedaban para Vitoria*”<sup>23</sup>. Akatsa begien bistan agertzen da César González Mínguezek herri hauek guztiak 125 orriko mapara eramaten dituenean, Trebiñu aldeko *Meana* sartzen duelako, Mendiola eta Gaztelu herrien arteko herri hustuaren orde.

## MOSKATOR

*Muscator* toponimoaren lekukotasun goiztiarra dago Donemiliagako kartularioaren 937 urteko dokumentu batean: “*Ego Nunnu Ciclave trado una vinea ante Muscatorum, inter ambas vias*”<sup>24</sup>. Trebiñu aldeko Moskator herria al da? Ezezkoan nago, aipatutako mahastiak eta ondasun horiek guztiak *San Esteban de Salcedoko* monasterioari emandakoak baitira. Antzinatasun handiko monasterioa da berau. Lehenbiziko aipamen dokumentala 873 urtekoa da, eta gaur egun Lantaron udalerrikoa den Salcedo herrian zegoen, herrigunetik berrogeita hamar bat metrotara<sup>25</sup>. *Muscator* berriro agertzen da kartulario berean, 1025 urteko dokumentu ezagunean, *Ossingani* barruan zerrendatzen den *Moscatuero* herria: “*Ossingani, XXV regas [...] Moliniella, una rega. Olibani, una rega. Moscatuero, una rega. Comungoni, una rega [...]*”<sup>26</sup> Beste behin forma diptongatuarekin aurkitzen dugu 1027-1034 urteen bitartekoa den dokumentu batean: “*Ego Garcia Aibas trado ad regula de Salceto vineas, id est una vinea albariza, latus Oveco Monnioz de Moscatuero*”<sup>27</sup>.

Guztiarekin ere, herri hau azkar hustu bide zen, seguruenik IX mendearen erditik XIII mendearen erdira bitartean, ordurako ez baita agertzen Kalagorriko apezpiku Jeronimo Aznarren 1257ko gutunean, Erriberako artzapez barrutiaren zerrendan. Hala ere, toponimia txikian laga du arrastorik, oraindik ere Salcedoko jurisdikizioan *Moscadero* leku-izena erabiltzen dutelako.

Trebiñu aldeko *Moskator* herria, aldiz, ez da agertzen 1025eko dokumentu horretan *Ribo de Ibita* epigrafearen barruan, eskualdeko erdi-mendebaldeko gainerako herrien antzera. Horretatik ez da nahitaez ondorioztatu behar *Moskator* artean existitzen ez zenik. Adibidez, Añastro ere ez da Donemiliagako dokumentu horretan aipatzen, baina kartulario berean aurkitzen da, handik

<sup>22</sup> GONZÁLEZ SALAZAR, José Antonio (1988: 99 eta 111).

<sup>23</sup> GONZÁLEZ MÍNGUEZ, César (1983: 125).

<sup>24</sup> UBIETO ARTETA, Antonio, *op. cit.*, 25 dok.

<sup>25</sup> LÓPEZ DE GUERENU, Gerardo (1962: 249-250).

<sup>26</sup> UBIETO ARTETA, Antonio, *op. cit.*, 180 dok.

<sup>27</sup> UBIETO ARTETA, Antonio, *Ibidem*, 204 dok.

gutxira, 1083 urtean: “[...] *et in Villa Angastro uno collazo cum suas casas, Munnio Blascoz nomine, et meam hereditatem quod habeo in ipsa Villa Angastro*”<sup>28</sup>. Trebiñu aldeko *Moskator* izenaren estreinako lekukotasuna berandukoa da, 1415 urtekoa. Kalagorriko apezpikuak eta Trebiñu aldeko abadeek zuten auzia dela-eta aipaturik dago inguruko herriekin batera. Testu berean birritan dago *Moscadero* grafia okerrarekin, baina *Moscadero* irakurri behar delakoan nago<sup>29</sup>.

Geografiaren luze-zabalean bada antzeko izenik. Kasurako, Burgosko Bureba eskualdean *Moscadero* herria dago, Burgosko hiriburutik 45 kilometro ingurura. Trebiñu aldeko *Moskator* herriaren gaztelaniazko formarekin (*Moscador*) daukan antzekotasunari zor bide zaio Gaztelako Administrazioak ‘de Treviño’ gehigarria erantsi izana. Antzera egin du *Busto de Treviño* herriaren izenaren kasuan, *Busto de Burebatik* bereizteko. Bereizgarriaren erabilera XIX mendearen hasieran zabaldu bide zen. Izan ere, 1843 urtean *Busto de Bureba* agertzen da<sup>30</sup>, baina artean XVIII mendearen bukaeran *Busto* idatzita agertzen dira Burebako herria zein Trebiñu aldekoa, osterantzeko bereizgarririk gabe. Orduan ere *Moscador* bezala agertzen da Trebiñu aldeko herria, eta *Moscadero* idatzita Burebako.

Bureba aldeko *Moscadero* herria ere badago Donemiliagako kartularioan, eta ez da Trebiñu aldekoarekin nahastu behar. 1068 urteko dokumentu batean zerrendatzen da, *Moscatuero* idatzita: “*De collazos et hereditates in Ripa retunda et in Ventosa et in via de Balleio et in Besiga et in Fermosiella et in Moscatuero et in Carceto, in Castriello et in Avalgas et in Barcena et in Arconata [...] In Moscatuero, nostra portione[...]*”<sup>31</sup>. Urtea zehazteke duen beste dokumentu batean ere dokumentatzen da Burebako datekeen *Moscatuero* herria: “*Cum illo palacio de Moscatuero, cum suis divisis in omnis locis ad eam villam pertinentibus. Et in villa de Moscatuero omnes de Sancti Emiliani ubi voluerint populare faciant qui non fuit villa partita nec divisa*”<sup>32</sup>. Ondoren, 1270 urtean, *Moscaduero* forma ozenarekin agertzen da *San Salvador de Oñako* dokumentazioan, Briviescako *Sancho Royz* delakoaren semeak monasterioari egindako salmenta batean: “[...] *toda la mi heredit que yo he et deuo auer en Moscaduero [...]*” Era berean, datarik gabeko beste dokumentu honetan aurkitzen da: “[...] *e el cascaiar de carrera de Moscaduero [...]*”<sup>33</sup>.

<sup>28</sup> LEDESMA RUBIO, M<sup>a</sup> Luisa (1989: 60 dok.). Bidenabar, nabarmentzekoa da zein hutsune handia den oraindik Donemiliagako kartularioaren aurkibide onomastikorik ez egotea, gabezia honek asko zailtzen baitu izenen bilaketa. M<sup>a</sup> Luisa Ledesmaaren liburuaren atariko hitzetan aurkibide osoaren hurrengo argitaratzea iragarri arren, hamazazpi urte pasatxo direlarik, oraindik ez da proiektua gauzatu: “[...] *los índices de los dos volúmenes se publicarán aparte, ya que su gran extensión lo harían inviable, dado el número de páginas que ya de por sí alcanza*”.

<sup>29</sup> RUIZ DE LÓIZAGA, Saturnino (1997: 29 dok.).

<sup>30</sup> MARTÍNEZ DÍEZ, Gonzalo (1983) Egileak xehetasunik ez emanagatik, seguru asko 1785ean Floridablancako kondearen aginduz intendenteek egin zituzten erreinuko hirien eta herrien zerrendak erabili ditu dokumentazio-iturri gisa.

<sup>31</sup> UBIETO ARTETA, Antonio, *op. cit.*, 367 dok.

<sup>32</sup> LEDESMA RUBIO, M<sup>a</sup> Luisa, *op. cit.*, 501 dok.

<sup>33</sup> ALAMO, Juan del (1950: 588 eta 746).

## DORDONIZ

Herri honen izena zenbait aldiz agertzen da Erdi Aroko dokumentazioan, XII mendeaz geroztik. Lekukotasunik goiztiarrena 1110 urtekoa da, *Munio Alvaro* zeritzanak *San Salvador de Leire*ko monasterioari Dordonizko dekania bat ematen diona: “*et dono unam decaniam que uocatur Sancti Cipriani de Dordoniz cum terris et uineis et pertinentiis suis*”<sup>34</sup>. Urte berekoa da *Andregoto* deiturikoak, bere aitita-amamen arimen alde, Leireko eta *San Miguel de Ripako* monasterioei egiten dien donazioa: “*Sancta Maria de Roteceno, Sancti Juliani de Caborneca, Sancti Michael de Mercora, Sancta Maria de Yrzu, Sancta Maria de Ocozta, Sancti Cirpiani de Dordoniz, Sancti Petri de Cuisu*”<sup>35</sup>. Handik gutxira, 1113 urtean, berriro azaltzen da monasterio hau: “*Dono etiam Sanctum Ciprianum de Dordoniz [...]*”. *Munio Alvaroiz de Fozana* izenekoak eta haren emazte *Elvira Diezek* Leireko *Raimundo* abadeari ematen dizkioten monasterioen zerrendan dago *Dordoniz*: “[...]  *dono [et] concedo illud monasterium de Berganz, cum illa mea parte de monasterio de Ripa [...]. Dono etiam Sanctum Ciprianum de Dordoniz, monasterium de Berandiuilla, Sancta Columbam de Vribarri, Sanctum Julianum de Cauorneca, Sanctum Michaellem de Isniela, Sanctum Iohannem de Olla Ferrera [...] et in Pipaphona illas casas que sunt iuxta ecclesiam sanctorum Cosme et Damiani [...]. Dono etiam adhuc [...] illas duas ecclesias de Soto et de Cornaua*”<sup>36</sup>.

Herri hau Trebiñu aldekoarekin identifikatu izan da orain arte. Esaterako, Luis Javier Fortún historiagileak Trebiñu aldean kokatzen du: “*Cuando en 1110 Munio Alvaro, otro de los hijos de don Marcelo, devolvió su parte de Ribas, transfirió igualmente a Leire la decanía de San Cipriano de Dordóniz, en el centro del actual condado de Treviño*”<sup>37</sup>.

Guztiarekin ere, nago dokumentu horretako *Dordoniz* herriaren kokatzea gutxienez dudazkoa dela eta, beraz, Trebiñu aldekoa izan beharrean, Errioxan aspaldian desagertutako herri homonimoa izan daitekeela. Kalagorriko apezpiku Jeronimo Aznarren 1257ko gutunean aipatzen da, Errioxako artzapez barrutian (*in Archipresbyteratu de Rio de Oia*), *Leiva*, *Blascori* eta *Ferramelluri* herrien artean. Gainera, elizaren adbokazioa beste susmabide bat dugu Trebiñu aldekoa ez dela uste izateko, gaur egun *Santiago* baita eta lehenago ere ez dago *San Zipriano* izan zitekeen lekukotasunik, ez dokumentazioan, ezta elizako ikonografian ere. Gaurko adbokazio bera zeukan XVI mendearren erdian ere, Martin Gil lizentziatuaren bisita-liburuan irakur daitekeenez: “*La yglesia se llama Sanctiago*”<sup>38</sup>.

Erdi Aroko dokumentazioarekin jarraituz, dudagabea da Donemiliagako kartularioan urtea zehazteke duen donazio-dokumentu batean aipaturiko *Dordoniz* Errioxakoa dela, eta ez Trebiñu aldekoa, berriaz Herramelluriko soro batzuen artean kokatua dagoela esaten delako:

<sup>34</sup> MARTÍN DUQUE, Ángel J. (1983: 230 dok.).

<sup>35</sup> MARTÍN DUQUE, Ángel J. *Ibidem*, 239 dok.

<sup>36</sup> MARTÍN DUQUE, Ángel J., *Ibidem*, 254 dok.

<sup>37</sup> FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, Luis Javier (1985: 347); FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, Luis Javier (1993: 632): “*La decanía no pasa de ser un concepto de contornos imprecisos, que hace referencia a cualquier dependencia del dominio monástico. En teoría el decano es el miembro más antiguo de una comunidad, que asume su dirección y lo hace frecuentemente en defecto o sustitución de otra autoridad*”.

<sup>38</sup> DÍAZ BODEGAS, Pablo (prestatzailea) (1998: 288).



“*De hereditates de Herramellori [...] Una vinea in Dordoniz assulco Gundissalvi Didaci*”<sup>39</sup>. Errioxako *Dordoniz* herria aspaldiko denboretan galdua da. Zehatzago, zegoeneko XVI. mendearen erdirako hutsik zegoela ondorioztatu beharrean gaude, Martin Gil lizentziatuaren bisita-liburuan aipamenik ez dagoelako.

Bada beste dokumentu bat, 1416 urtekoa, Saturnino Ruiz de Loizagak<sup>40</sup> eginiko transkripzioan *Dordonez* aldaera duena. Dokumentuak Benedikto XIII Aita Santuak Naiarako prioreari eginiko mandatua jasotzen du, beronek irtenbidea eman ziezaion *Juan Martínez de Tafallak Rodrigo Rodríguez de San Pedro*rekin eta *Juan Pérezekin* zeraman auziari, Kalagorriko elizbarrutiko zenbait herritan zeuzkan prestimonioak hartzea eta gozatzea eragozten baitzioten: “*Exhibita nobis pro parte dilecti filii Iohannis Martini de Tafalla, canonici ecclesiae Calaguritanae, petitio continebat quod, licet olim ipse de Ma[n]jurga, de Doypa, de Dordonez, de Villalba, de Castannares, de Formella, de Matute, de Villamediana et de Guerenna [...]*”. Kasu honetan, Arabako nahiz Errioxako herrien artean zerrendatzen delarik, ez dago baieztatzerik bi herri homoni-moetatik zein den.

## PANGUA

*Pangua* herria lehenbiziko aldiz 1071 urtean agertzen da, Leireko monasterioaren Erdi Aroko dokumentazioan: “*Oferimus ecclesiam Sancti Micahelis cum sua uilla que uocatur Ripa, et Sanctam Gemmam, et Ararrian, et terciam partem que pertinet ad nos in Pangoa [...]*”<sup>41</sup>.

Ordura arte orokorra zen ustearen kontra, Luis Javier Fortúnek dokumentu horretakoa Nafarroako Sónsierran existitu zen *Pangua* herria dela dio, eta ez Trebiñu aldekoa. Egile honen hitzetan, XV eta XVI mendeetako dokumentazioak iritzi hau berretsi besterik ez du egiten<sup>42</sup>.

Euren kabuz, María de los Ángeles de las Heras eta Ildefonso V. Tojal ondorio berera iristen dira, antza denez historiagile nafarraren ikuspuntua ezagutu gabe: “[...] *se plantea la duda de si esta villa de Pangua es la situada en el condado de Treviño, como cree don José Orlandis, o, si, por el contrario, es su homónima ubicada en la Sonsierra, muy cerca de San Miguel de Ripa*”. Guztiarekin ere, bi egile hauen zalantza 1071 urteko lekukotasunera mugatzen da, hortik aurrerako dokumentuetan garbi asko ikusten baita, euren elizen adokazioengatik, izen bereko bi toki desberdin direla: “*Varios documentos posteriores al año 1071, proporcionan noticia cabal de la existencia de dos monasterios claramente diferenciados: San Martín de Pangua ultra Hyberum, y*

<sup>39</sup> LEDESMA RUBIO, M<sup>a</sup> Luisa, *op. cit.*, 488 dok.

<sup>40</sup> RUIZ DE LÓIZAGA, Saturnino, *op. cit.*, 31 dok.

<sup>41</sup> MARTÍN DUQUE, Ángel J., *op. cit.*, 93 dok.

<sup>42</sup> FORTÚN PÉREZ DE CÍRIZA, Luis Javier (1993: 344): “*Tradicionalmente se ha identificado Pangua con el pueblo del mismo nombre en el condado de Treviño, pero hay que tener en cuenta también que existe un término en Labastida con el mismo nombre y próxima a Ribas está la llamada ‘Casa Pangua’. La documentación posterior de los siglos XV y XVI permite identificar esta última con la donada en 1071*”.

<sup>43</sup> DE LAS HERAS, M<sup>a</sup> de los Ángeles / TOJAL, Ildefonso (1995: 177).

*Santa María de Pangua, en el condado de Treviño*<sup>43</sup>. Ikus ditzagun lekukotasunik zaharrenak, XII eta XIII mendeetakoak:

a) **San Martín de Pangua (Nafarroako Sónsierra)**

- 1113 urtean *Angela Muñoz* zeritzanak, *Martzelo* jaunaren birbilobak, Naiarako Santa Mariari erantsi zion Panguako monasterioa, San Vicente de la Sónsierran eta Burgetan (hau bai Trebiñu aldekoa) zeuzkan sorokin batera: “*dono monasterium, scilicet ecclesiam, Sancti Martini de Pangua, cum omnium integro hoc quod ibi habeo uel habitura sunt et totam illam hereditatem Sancti Vincentii que ad me pertinet, similiter cum tota sue integritate. Et insuper addo illam sernam de Burgueta vobis priori de Sancta Maria de Naiara et Sancto Petro cluniacensi et monachis cluniacensibus Deo et Sancte Marie de Naiara servientibus [...]*”<sup>44</sup>.
- 1175eko martxoan, Gaztelako errege Alfonso VIII.ak Cluny-ko monasterioari Naiarako Santa Maria eliza konfirmatu zion bere soro eta eskubide guztiekin: *ultra Hyberum monasterium de Panga (sic), cum omnibus suis pertinentiis*<sup>45</sup>.
- 1268 urtean San Vicente de la Sónsierra inguruko Pangua aipatzen da ondoko dokumentuan: “*En la merinia, don Pedro Garceiz, lo que delibra l’ abbat de Arroniz [...] De Sant Vicent [...] Ibi de Sancto Martinen, per la hereditat de Pangoa 1 robos 2 cuartales de trigo e 1 robo 2 cuartales de ordio*”<sup>46</sup>.

b) **Santa María de Pangua (Trebiñu aldea)**

- Aurkitu dudana lekukotasunik zaharrena 1240 urteko dokumentu bat da. *Iñigo de Mendoza* jaunak Kalagorriko apezpikuari eta katedraleko kapitulari bertan zeukan zati osoa ematen die: “*toda la mi part del monasterio de Santa María de Pangua, con todas sus heredades y con todas sus pertenencias*”. Tartean Pangua, Añastro, Faidu, Morgas, Burgeta eta beste zenbait herritako elizen hamarrenen laurdenak ziren<sup>47</sup>.
- De las Heras eta Tojal errioxar egileek diotenez, 1278 urtean Santa Maria de Herrera monasterio zistertarrak eskubide batzuk zeuzkan Trebiñu aldeko Santa Maria de Pangua monasterioan.

Bi herrien patua zeharo desberdina izan da. Trebiñu aldekoak gaur egun zutik dirauen bitartean, Nafarroako Sónsierrakoa aspaldian galdua da. Hala ere, oraingo toponimia txikian badago herri hustuaren oihartzunik, Ribas de Tereso eta San Vicente de la Sónsierra herriek mugakide duten inguru bati *La Pasada de Pangua* esaten diotelako<sup>48</sup>. Herriaren kokapen zehatza ez da ezagun baina, De las Herasek eta Tojalek diotenez, zenbait herritarren ustetan, bertako nekropoliaren hego-mendebaldean zegoeken: “*Ignoramos el lugar exacto donde estuvo emplazada la villa sonserrana de Pangua, aunque algunos*

<sup>44</sup> RODRÍGUEZ R. DE LAMA, Ildefonso (1992: 51 dok.). Egile honek gaizki kokatzen du herria Trebiñu aldean: “*Pangua y Burgueta son dos pueblecitos próximos a La Puebla de Arganzón (Burgos)*”.

<sup>45</sup> RODRÍGUEZ R. DE LAMA, Ildefonso (1979: 75 dok.).

<sup>46</sup> FELONES MORRÁS, Román (1982).

<sup>47</sup> RODRÍGUEZ R. DE LAMA, Ildefonso (1989: 135 dok.).

<sup>48</sup> GONZÁLEZ SALAZAR, José Antonio (1986b: 19 eta 21).

*vecinos conocedores de la zona creen que al SO. de su necrópolis, perfectamente localizada [...] Junto al borde Sur de la necrópolis se edificó la iglesia, hoy totalmente arruinada y colmatada*<sup>49</sup>.

Bide batez esanda, homonimia-kasuek kokatze historikoetan sor ditzaketen gaizkiulertuen beste adibide argitsu bat dugu inguru horretako *San Miguel de Ribas* bera. Zenbait egileren lanetan zabaldutako akats honetaz ohartarazten du Luis Javier Fortúnek bere doktorego-tesian<sup>50</sup>. José Moretek eta Gregorio Balpardak gaurko Ribas de Tereso herriarekin zuzen identifikatu zuten, baina Juan Antonio Llorentek, ordea, Araban kokatu zuen, Erriberagoitian, eta okerreko kokatze horri jarraitu diote, besteak beste, F. Cantera Burgosek, Julián Cantera Orivek eta José Orlandisek. Nahastearen abiapuntua da Donemiliagako kartularioaren 1025eko dokumentuan, Villabezana eta Turiso artean, zerrendatzen den *Ripa* homonimoa: “[...] *Billa vizana, una rega [...] Ripa, una rega. Torrisu, una rega[...]*”<sup>51</sup>. Gaur egun herri hustua da berau. Ribas de Teresoko herrigunetik gertu, *Barranco Riparán* (< *Erripa* + *haran*) deritzan tokia dago<sup>52</sup>, bere baitan herriaren jatorrizko izena gordetzen duena. Izan ere, Nafarroako Sonsierraren mendebaldean oraingo toponimia txikia ere oparoa da euskarazko izenetan, bertakoen behialako euskalduntasunaren erakusgarri.

Askotxo dira, beraz, eskualde horretan euskararen bitartez esplika daitezkeen izenak, baina ez zait zuzena begitantzen Salvador Velillak argitaratu berria duen artikulu batean Briñas eta Bastida arteko *Cova Assuri* haitzuloaren izenaz ematen duen interpretazioa: “*En la pared del fondo, brechas de tierra calcárea, blanquecina, pueden haber influido en la denominación que aparece en el Cartulario de San Millán del año 1075: Assuri = Haitz zuri = piedra/peña blanca*”<sup>53</sup>. Ez dut uste euskarazko izen baten aurrean gaudenik. *Assur(i)* antroponimo ezaguna da, Euskal Herriko nahiz Gaztelako Erdi Aroko iturrietan sarritan dokumentatua eta *Assuriz* edo *Assurez* patronimikoa eman duena<sup>54</sup>. Beste kontu bat da *Assur(i)* izenaren jatorria zein den.

## ERRIOXAKO DORDONIZ ETA NAFARROAKO SONSIERRAKO PANGUA ETA BESTE BIRPOPULATZE-TOPONIMOAK OTE DIRA?

Gutxi dokumentatuta daude Arabako hegoaldean eta mendebaldean Erdi Aroan izandako mugimendu demografikoen nondik norakoa eta zein egoera

<sup>49</sup> DE LAS HERAS, M<sup>a</sup> de los Ángeles & TOJAL, Ildefonso, *op. cit.*, 178 or.

<sup>50</sup> FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, Luis Javier (1993): “*La localización de San Miguel de Ribas ha sido objeto de controversia. El P. Moret (Annales del Reyno de Navarra, II, Tolosa, 1890, 387) lo identificó correctamente con la actual aldea de Ribas de Tereso, dependiente de San Vicente de la Sonsierra, hoy en la provincia de La Rioja. Toda la documentación posterior de los fondos legerenses abona esta interpretación. También G. Balparda (Historia crítica de Vizcaya, II, 229 y ss.) la admitió. Frente a esta opinión, J. A. Llorente (Noticias históricas de las tres Provincias Vascongadas. Alava, Guipúzcoa y Vizcaya, III, Madrid, 1807, 404-406) lo situó en la Ribera Alta de Álava, junto a San Pelayo. Esta errónea localización ha sido admitida por F. Cantera Burgos (El fuero de Miranda de Ebro, Madrid, 1945, 91), J. Cantera Orive (Un obispo alavés del siglo XI, Vitoria, 1960, 45) y J. Orlandis (La estructura eclesíástica de un dominio monástico: Leire, 369)*”.

<sup>51</sup> UBIETO ARTETA, Antonio, *op. cit.*, 177 or.

<sup>52</sup> GONZÁLEZ SALAZAR, José Antonio (1986b: 19).

<sup>53</sup> VELILLA CÓRDOBA, Salvador (2006: 17).

<sup>54</sup> SALABERRI ZARATIEGI, Patxi (2003: 154); Díez MELCÓN, Gonzalo (1957: 14, 98, 128 eta 180).

politiko-sozialetan gertatu ziren. Hala ere, Alfonso III.aren Kronikak, arabiarren konkistatik mende eta erdira idatzitakoak, Araba beti bertakoen esku geratu zela jakinarazten du: *“Alaba namque Bizcaia, Alaone et Urdunia a suis incolis reperintur semper esse possessae, sicut Pampilona, Degius est, atque Berroza”*. Horrela, Julio Caro Barojaren ustez, Arabako hegoaldean Marañondik *Portilla de Ibdaraino* hedatzen zen gazteluen katea bat datorke armada arabiarrek hartu ez eta, beraz, berriz konkistatu beharrik izan ez zuen lurraldearen mugarekin: *“Esta línea parece ser la de la tierra no reconquistada: la que quedó, también, a suis incolis y a la que, en Navarra, sigue la de la Berrueza...”*<sup>55</sup>.

Besterik da, ordea, Toloño mendilerrotik hegoaldera, Nafarroako Sónsierran arabiarren konkistak bertakoen erabateko exodoa eragin ote zuen ala ez. Dakigunaren arabera, IX mendearen bukaerakoa den Alfonso III.aren Kronika berak dio Alfonso I.ak eta Fruelak euren espedizio militarretan ‘civitas’ batzuk korritu zituztela eta, tropa musulmanak suntsitu ostean, tokian tokiko kristauak eraman zituela, eurekin Kantauri aldeko zenbait lurralde birpopulatzeko. ‘Civitas’ horien artean Ebro aldeko hauek aipatzen dira: *“[...] Miranda, Revendeca, Carbonarica, Abeica, Cinasaria et Alesanzo seu castris cum villis et viculis suis, omnes quoque Arabes gladio interfeciens, Xptianos autem secum ad patriam ducens”*<sup>56</sup>. Miranda de Ebroren erreferentzia garbia da. *Revendeca* Revengarekin identifikatu da (alegia, Miranda de Ebro inguruan Erdi Arora arte existitu zen herriarekin<sup>57</sup>), *Cinasaria* Cenicerorekin eta *Alesanzo* Alesancorekin. Alderdi linguistiko hutsetik gaitza badirudi ere, *Abeica* Ábalosekin erlazionatu izan da<sup>58</sup>. Azkenik, Ernesto Garcíak<sup>59</sup> *Carbonarica* Leireko kartularioan dokumentatzen den Bastida inguruko *San Julian de Carboneca*ekin lotu du, eta berau *Tabuérniga* herri hustuarekin. Buradon Gatzagan eta Bastidan –bi herriak euskarazko toponimia ugarikoak dira oraindik– diptongatu gabeko *Taborniga*<sup>60</sup> forma darabilte bertakoek, mendetan *Tabuérniga* gaztelaniazko formaren ondoan iraun duena.

Edozein modutan ere, A. Barberok eta M. Vigilek zalantzan jartzen dute Alfonso III.aren kronikaren edukia –ez, ordea, ‘civitas’ horien zerrendaren egiantza–. Egileon iritiz, hau guztia fikzio historiografiko bat besterik ez da, zeren aipatutako lurraldeetako bizilagunek zergak ordaintzen baitzizkieten musulmanei, harik eta Alfonso III.aren denboran (866-910) asturiarren orbita politikoaren menpera iragan ziren arte. Uste honi jarraikiz, lurralde hauek ez ziren jendez hustuko. Ikuspuntu honekin bat egiten dute Ernesto Garcíak, Félix Lópezek eta José Ramón Díaz de Duranak<sup>61</sup>. Horrezaz gainera, Ernesto

<sup>55</sup> CARO BAROJA, Julio (1983: 32): *“Es significativo también que en los textos árabes, referentes a la Reconquista, no se aluda a los accesos a Álava, que hay en las sierras que continúan el sistema de los Obarenes hacia el Este: es decir, la sierra de Toloño, la de Cantabria y aún la de Codés. Los accesos hacia el Norte son mucho más difíciles desde lo que hoy es Rioja Alavesa”*.

<sup>56</sup> GIL FERNÁNDEZ, J. & MORALEJO, J. L. & RUIZ DE LA PEÑA, J.I. (1985: 132).

<sup>57</sup> Gaur egun Arce auzoa dena, hots, antzinateko *Deobriga*, azkenaldiko indusketen argitan.

<sup>58</sup> GARCÍA FERNÁNDEZ, Ernesto (1992: 23).

<sup>59</sup> GARCÍA FERNÁNDEZ, Ernesto, *Ibidem*, 14-20 or.

<sup>60</sup> GONZÁLEZ SALAZAR, José Antonio (1986b: 15 eta 17).

<sup>61</sup> GARCÍA FERNÁNDEZ, Ernesto & LÓPEZ LÓPEZ DE ULLIBARRI, Félix & DÍAZ DE DURANA ORTÍZ DE URBINA, José Ramón (1990: 23-24).

García<sup>62</sup> idatzia du agian kronika horrek garai hartan izandako migrazio-fenomeno baten berri ematen duela, hegoaldeko zenbait lurraldetako jendea Kantauri aldera, besteak beste, Sopuerta eta Karrantza populatzera eraman izan zenekoa: “*Eo tempore populatur Asturias, Primorias, Liveria, Transmera, Subporta, Carrantia, Bardulies qui nunc vocitatur Castella et pars maritimam et Gallecie*. Gainera, Nafarroako Sónsierrako zenbait herriren izenak eta Kantabriakoak homonimoak izatea, bere tesiaren aldeko zantzua irizten dio Ernesto García: “*Existen en la Comunidad Autónoma de Cantabria localidades o comarcas con nombres similares a los que se pueden encontrar en los alrededores de Haro, Labastida, San Vicente de la Sonsierra y Peñacerrada: Cabuérniga, Saja, Orzales, Cellorigo, etc.*”<sup>63</sup> Horietarik, Orzales Toloño mendilerroaren magalean zegoen, 700 metroko muino batean, eta 1702 urtean jendez hustu zen<sup>64</sup>. Izen bereko herri bat dago Kantabrian, Reinosako ipar-ekialdean.

De las Herasek eta Tojalek uste dute Nafarroako Sónsierra jendez hustu zela eta ondorengo birpopulatzeari, neurri handi batean, Martzelo jaun arabarrari eta bere familiari zor zaiola. Euren aburuz, berak sortu bide zuen XI mendearen hirugarren laurdenean gaur egun Ribas de Tereso izenarekin ezagun den herria, baita *San Miguel de Ripa* monasterioa ere. Inguruko Pangua herriaren sorreran ere Martzelo jaunak parte hartu zuelakoan daude<sup>65</sup>. Honenbestez, birpopulatzeari prozesu horretan arabar jendeak zukeen usteko ekarpena nabarmentzen dute egileok, toponimia ere oinarri hartuta: “*Algunos topónimos, como los de Herramélluri y Motilluri, parecen responder al nombre de los fundadores, en tanto que otros, como Pangua y Doroño, con homónimos en el Condado de Treviño, deben de aludir a sus lugares de origen [...] Creemos que los repobladores alaveses rebasaron, en su mayoría, la Sierra de Cantabria por el paso de Ribas, haciendo uso de la calzada romana que la atravesaba al pie del Toloño, y se instalaron en el somontano. En un primer momento pegados a la Sierra, en enclaves muy próximos al puerto: San Román, villas de Ribas, Orzales, Pangua y Herramélluri*”<sup>66</sup>.

Nafarroako Sónsierran Erdi Aroan gertatutako joan-etorri demografikoen beste zantzuk bat —oraingoa beste norabide batekoa— *Artajona* zeritzan herri hustua dateke, Nafarroako hiribildu entzutetsuaren izenkide dena. Abalostik Bastidara bitartean zegokeen, Ebro ibaira bidean, baina ez da zehazki jakiten non kokatua zegoen. Ángel Casimiro de Govantesek idatzi zuenez, haren berri dugu Erdi Aro Garaiaren dokumentuetan oinarrituta<sup>67</sup>.

<sup>62</sup> GARCÍA FERNÁNDEZ, Ernesto (1992: 29): “*En las crónicas de finales del siglo IX se indica hacia qué regiones se llevó a los habitantes de las numerosas ‘civitates’ del valle del Duero y del Alto Ebro. (...) En suma, aquellos que se dirigieron al Norte fueron instalados en la Comunidad de Cantabria y en las Encartaciones Vizcainas*”.

<sup>63</sup> GARCÍA FERNÁNDEZ, Ernesto (1998: 42).

<sup>64</sup> DE LAS HERAS, M<sup>a</sup> de los Ángeles & TOJAL, Ildefonso, *op. cit.*, 152-155 or.

<sup>65</sup> DE LAS HERAS, M<sup>a</sup> de los Ángeles & TOJAL, Ildefonso, *Ibidem*, 43 or.: “*Creemos que el propio don Marcelo intervino en la fundación de la villa de Pangua (73 oharrean: de la que era propietario en el año 1071 y de la que fueron señores sus nietos Fortún, García y Albaro Gonzalboiz de Sancti Martini) y de su iglesia-monasterio de San Martín, iglesia que una biznieta suya, donna Angelo Munioz, donó en 1113, junto con su heredad de San Vicente, al monasterio de Santa María de Nájera [...]*”.

<sup>66</sup> DE LAS HERAS, M<sup>a</sup> de los Ángeles & TOJAL, Ildefonso, *Ibidem*, 42-47 or.

<sup>67</sup> GOVANTES, Ángel Casimiro de (1846): “*De Artajona, pueblo próximo a Abalos que hoy no existe, dan fe varios documentos altomedievales*”.

Kasurako, 1083 urtekoa da Donemiliagako monasterioari egindako lursail baten donazioa: “*Alia terra in Artason, super via que vadit a Mutillori*”<sup>68</sup>. De las Herasen eta Tojalen iritziz, herri hau XV mendearen bigarren laurdenean galdu bide zen, Nafarroaren eta Gaztelaren arteko gerran suntsituta<sup>69</sup>

Eskualde horretako gaurko toponimia txikiaren bi leku-izenetan oraindik gordetzen da *Artajona* horren oihartzun garbia. Bata *Carratajona* (< \**Carrartajona*) da, bide baten izena. Lurrez Samaniego izanik ere, Abalosko barrutiaren hegoaldeko norabidean dago. Beste toponimoa *Los Llanos de Artajona* da, Bastidakoa. Errepidearen ondoan dago, Harorantz<sup>70</sup>.

*Artajona* izenak aztarnarik laga du eskualdeko onomastika historikoan. Esaterako, Donemiliagako kartularioaren ondoko bi dokumentuotan azaltzen da, biak 1128 urtekoak. Batean, *Sancho Fortuñones* jaunak Donemiliagari eskaintzen dio *San Felices de Avalosen* daukan zatia, baita Ceniceroko beste ondasun batzuk ere: “*Garcia Lopez de Artessona testis, Gonzalvo Beilaz, suo sobrino de Artessona, testis*”<sup>71</sup>. Bestean, *San Felices de Avalosen* eta *Ceniceron* Donemiliagari egindako donazio batzuk aipatzen dira, besteak beste: “*Et ego domna Mentia Lopez, filia de Lope Harramelliz de Artassona [...]*”<sup>72</sup>.

Honenbestez, orain arte azaldutako datuen argitan, uste izatekoa da IX mendearen bukaeran, nafarrek eta leondarrek Errioxa Garaia birkonkistatu ondoren, bi erreinuetako jendea ailegatuko zela lurralde hau populatzera<sup>73</sup>. Beraz, litekeena da, alde batetik, *Artajona*, *Dordoniz* eta *Pangua* bezalako homonimoak Iruñeko erreinuaren eraginpeko jendearen etorreragatik esplikatzeara. Beste alde batetik, *Orzales* eta Kantabria historikoan homonimoak dauzkaten gainerako toponimoak Leongo erreinutik iritsi zen jendeak ekarritakoak dirateke. Edozein modutan ere, honek guztiak ez du ezinbestean esan nahi VIII mendearen hasieran arabiarrek Ebro ibaiaren bazterrez jabetutakoan, lurraldea jendez hustu eta erabateko populazio-ordezkapena gertatu zenik. Seguru asko, IX mendean kristauen birkonkistak ekarpen demografiko garrantzitsua ahalbidetu zuen, musulmanen menperaldian bertan bizi izandako kristauekin txertatzera etorri zena. Ondorioz, balegoke birkonkistaren osteko birpopulazte-prozesuarekin lotu beharrekoa ez den toponimorik. Kategoria horretakoa dateke Nafarroako Sonsierrako *Doroño* herria, lan honen zortzigarren atalean erakusten ahaleginduko naizenez, bertako toponimo prerromatarra dela uste dudalako.

<sup>68</sup> LEDESMA RUBIO, M<sup>a</sup> Luisa, *op. cit.*, 357 dok.

<sup>69</sup> DE LAS HERAS, M<sup>a</sup> de los Angeles & TOJAL, Ildefonso, *op. cit.*, 194 or.: “*Aunque Artajona no figura entre las aldeas de San Vicente en el Libro de monedaje de tierras de Estella de 1350, ni en los Libros de Fuegos de 1366 y 1427, bien podía ser una pequeña entidad de población no recogida por ellos. En el Libro de monedaje citado tampoco figura Peciña, que sí recogen los otros, ni Rivas, que sólo aparece en el Libro de Fuegos de 1427 [...] Artajona, junto con otros pueblos inmediatos, debió de ser arrasado en el segundo cuarto del siglo XV a consecuencia de la guerra entre Navarra y Castilla*”.

<sup>70</sup> GONZÁLEZ SALAZAR, José Antonio (1986b: 17 eta 25).

<sup>71</sup> LEDESMA RUBIO, M<sup>a</sup> Luisa, *op. cit.*, 357 dok.

<sup>72</sup> LEDESMA RUBIO, M<sup>a</sup> Luisa, *Ibidem*, 358 dok.

<sup>73</sup> CANTERA MONTENEGRO, Enrique (1986: 249-250): “*La situación que respecto a la red de poblamiento aliorriojana nos encontramos a mediados del siglo XIII [...], es el resultado de un largo proceso iniciado a principios del siglo IX, cuando, tras la conquista cristiana, comenzaron a ser ocupados por campesinos y pastores las orillas de los ríos Ebro y Tirón [...] Sin embargo, la definitiva ocupación de estos territorios y su intensa reordenación no podría llevarse a cabo sino a partir de fines del siglo IX, tras la conquista de Pancorbo y Cellorigo en el año 870, de Ibrillos y Ocón en el 875, y de Grañón en el 899*”.

Leongo erreinutiko birpopulaketak toponimian izan zitzakeen ondorio lingustikoez dihardugularik, gomutara ekartzea komeni da Arabako mendebaldean ere horrelako fenomeno demografikorik dokumentatuta dagoela eta, seguru asko, gure lurraldearen Erdi Aroko historiaren zenbait momentutan Leongo erreinuak izan zuen eragin politikoaren testuinguruan kokatu behar dela. Ezaguna da Trebiñu aldeko mendebaldearekin mugakide den *Estavillo* herria aipatzen duen dokumentua, 871 urtekoa. Okoiztako monasterioari egindako donazio horretan emailearen arbasoak *Estavillora* Leondik etorriak zirela zehazten da: “[...] *ecclesias Sancta Gratia et Sancti Martini, in villa Stabellu, de illo Fresnu usque Salone, cum terminos et pertinentia, et cum terris, vineis, ortos, linares, ferragines, pomares, ad integritate, quia istas erencias de nostros avus habemus de Legione venerunt ibi*”<sup>74</sup>. Juan Antonio Quirósen hipotesia da, hain justu, Leongo monarkiak zerikusia izan lezakeela Arabako herrien sorrera-prozesuan<sup>75</sup>. Ene irudiko, hala ere, Asturiasko botereak izan zezakeen eragina ukatu gabe, orduan eratu berria zen Iruñeko erreinuarena ere aztertzekoa litzateke.

Trebiñu aldeko eremu konkretu batean ere, *Rojo* ibaiaren arroan gora (Billa-Tobera, Taravero, Dordoniz,...), badago zantzurik Leongo erreinuaren orbitako birpopulatze-fenomenoren bat gertatu izan zela uste izateko. Hala ere, ustezko etorri demografiko horren ezaugarriak eta eragin zitzakeen ondorio sozial eta linguistikoak ikerkizun dira oraindino. Berariazko lana mereziko luke ikerketa-ildo horrek, baina aurretiaz dokumentazio-lan handia dago egiteko. Egunen batean egitasmo hori aurrera eramatea izango den esperoan, oraingoz pare bat datu baino ez. Dordonizen *San Andres de Dueso* ermita dago, Erdi Aroan zegoen izen bereko herriaren eliza dena. Kalagorriko apezpikuaren 1257ko gutunean diptongatu gabeko *Doso* formarekin agertzen da. Latin jatorri garbikoa da (< *dorsum*) ‘bizkarra’ eta, berez, toponimoa tradizio erromantzetik bertan sortua izan baliteke ere -hau da, kanpotiko erreferente zuzenik gabea-, historian zehar euskal izenak argiro nagusi diren herri honetan arrotz samarra dirudi. Gainera, bada Kantauri aldean homonimorik. Batetik, Koruñan *San Lourenzo de Doso* dago, Narón kontzejuaren ekialdean eta, bestetik, Kantabrian, Santoñako *Dueso* auzoa, forma diptongatua-rekin. Erdi Aroko mugimendu demografiko horren balizko beste erakusgarri bat *Taravero* herriaren izena da. Estreinako aldiz Kalagorriko apezpikuaren 1257ko gutunean dokumentaturik dago, *Taravero* grafiarekin, gaur egun bezalaxe. Asturiasko ekialdeko Benia de Onís udalerrian *Talavero* auzoa dago (*Talaveru* asturieraz). Trebiñu aldeko *Taravero* herriaren izenetik oso gertukoa, bistan denez. Hartara, Trebiñu aldekoak euskararen testu zaharrenetatik ohikoa den bokale arteko -l->-r- bilakaera izan duela ematen du.

<sup>74</sup> UBIETO ARTETA, Antonio, *op. cit.*, 10 dok.

<sup>75</sup> QUIRÓS CASTILLO, Juan Antonio & VIGIL ESCALERA GUIRADO, Alfonso (inprimatzen): “La primitiva red aldeana altomedieval: arqueología rural del campesinado entre Toledo y *Velegia Alabense* entre los siglos V y X” in *Archeologia Medievale*, 42 or.: “*Nuestra hipótesis es considerar que el proceso de creación de las aldeas alavesas deba estar relacionado con la instauración de poderes a nivel supralocal o regional, quizás vinculados a la naciente monarquía asturiana, que alcanzan un grado de legitimidad y de hegemonía que da pie a una profunda reordenación de los espacios rurales alaveses*”. Eskerrak ematen dizkiot Juan Antonio Quirós irakasleari lan hau argitaratu eman aurretik ene eskura jarri izanagatik.

## DOROÑU TV(L)ONIVM TEONIMOAREN EUSKAL BILAKAERA?

Herri hau 1085 urtean agertzen da lehenengoz Donemiliagako kartularioan<sup>76</sup>, *Diego Vélaz de Treviana* jaunak soro batzuekin batera bere burua ere monasterio honi ematen dionean: “*De divisas in Villa Mioma, in rivo de Cella, in Tuesta, in Valle Cavo, in Ripa Velloza, in Trepiana, in Terroves, in Rama, in Doronio, in Salas [...] in Doronio de illo palacio solare integro cum divisa de Didaco Beilaz [...]*”. Zerrendatzen diren herrien hurrenkeragatik, baliteke Trebiñu aldeko *Doroñu* herria ez izatea, baizik eta Nafarroako Sónsierran, Ribas de Teresotik hurbil, zegoen herri homonimoa.

Leireko monasterioaren 1167-1172 urteen bitarteko beste dokumentu batean, ordea, ez dago dudarik Nafarroako Sónsierrako *Doroñu* herriaz diharduela: “*Ego Eneco de Lotza misi ad Sanctum Michaele de Ripa, pro anima mea et pro animabus omnium parentum meorum, illas meas casas de Doronno cum omnibus sibi pertinentibus [...] Factum est hoc donatiuum anno quo Ferrant Moro tenebat Sanctum Vincencium et faciebat castellum*”<sup>77</sup>. Izan ere, donazioaren lekuko gisa aipatzen dira, besteak beste, San Vicente de la Sónsierrako zenbait herritar eta, berariaz aipatzen denez, *Ferrant Moro* bertan tenente zelarik. De las Herasek eta Tojalek bilduak dauzkaten datuen arabera, *Doroño* izena emankorra izan da eskualde horretako onomastika historiakoan: “*En 1366, según el Libro de Fuegos, en San Vicente habitaban los hidalgos Martin Sanchiz de Dorono, Johan Sanchiz de Dorono y Martin Sanchiz de Dorono, el moço*”<sup>78</sup>.

Nafarroako Sónsierrako *Doroño* herria aspaldian galdua da, baina hango toponimiak oraindik gordetzen du horren berri. Izan ere, gaur egun *Doroño* deritzan arroa dago Ribas de Teresoko barrutian, Toloño mendiaren hegoaldeko magalean behera<sup>79</sup>. De las Herasen eta Tojalaren aburuz, *Doroño* arroaren bazterrean bide zegoen izen bereko herria, eta inguru horretan bertan dago bere nekropolia. Hirurogeita hamar hilobitik gora dauzka eta gaur egun *Las Sepulturas* izenarekin ezagun da<sup>80</sup>.

Ageri denez, *Toloño* menditik<sup>81</sup> *Doroño* herri hustua zegoen tokira bitarteko distantzia geografikoa txiki-txikia da, esan bezala magalean bertan dago eta. Nabarmentzekoa da bi izenen arteko distantzia fonetikoa ere zinez laburra dela, eta erraz dela esplikatzeko euskararen arau fonetikoak aplikatuz gero. Izan ere, Mitxelenak dioenez, batetik, euskaraz ohikoa da maileguetan hasie-

<sup>76</sup> LEDESMA RUBIO, M<sup>a</sup> Luisa, *op. cit.*, 108 dok.

<sup>77</sup> MARTÍN DUQUE, Ángel J., *op. cit.*, 331 dok.

<sup>78</sup> DE LAS HERAS, M<sup>a</sup> de los Ángeles & TOJAL, Ildefonso, *op. cit.*, 229 or.: “*El día 15 de octubre de 1376 los hidalgos de San Vicente de la Sónsierra nombraron procurador, entre otros, a Martín Sanchiz Dorono para que pudieran jurar la observancia de un artículo del tratado de paz entre los reyes de Castilla y Navarra, hecho por el cardenal de Bolonia, concerniente al matrimonio de Carlos, primogénito de Navarra, con Leonor, hija del rey de Castilla, en el sentido de que, si dicho infante muriese antes que el rey, su padre, su primogénito sucediera en el reino*”.

<sup>79</sup> GONZÁLEZ SALAZAR, José Antonio, (1986b: 19).

<sup>80</sup> DE LAS HERAS, M<sup>a</sup> de los Ángeles & TOJAL, Ildefonso, *op. cit.*, 229 or.: “*La necrópolis [...] se encuentra [...] en la margen occidental de un camino que enlaza el conocido Camino de Las Sepulturas (entre Labastida y San Vicente) y la carretera que va de Labastida a Ribas de Tereso. Armando Llanos confundió su ubicación, situándola más al Sur, junto al Camino de Las Sepulturas*”.

<sup>81</sup> Jatorriz, mendilero osoaren izena izan da, hartara Lapoblación aldetik Buradon Gatzagaraino, harik eta XIX. mendean zehar, kanpotiko eraginagatik, *Cantabria* izenarekin ordezkatzen hasi zen arte.



rako herskari ahoskabeak ahostuntzea; bestetik, bokale arteko *-l- > -r-* bila-kaeraren lekukotasun ugari dauzkagu testurik zaharrenetatik<sup>82</sup>.

Honenbestez, ene tesia da *Doroño* izena *Toloño*ren euskarazko bertsioa datekeela. Etimologiari dagokionez, M<sup>a</sup> Nieves Sánchezek, Trebiñu aldeko homonimoaz diharduelarik, *Hordonius* edo *Ordonio* antroponimoaren bitartez azaltzea proposatu izan du, batere garbi ez dagoela aitortuta ere<sup>83</sup>. Ene iritiz, hipotesi honek ez du euskarri sendorik eta Erdi Aroko dokumentazioak kontra egiten dio argiro. Arestian aipaturiko Nafarroako Sonsierrako dokumentazioaz gainera, Trebiñuko aldeko *Doroñuren* lekukotasunik goiztiarrena den Kalagorriko apezpikuaren 1257ko gutunean ere *Doroyno* grafiarekin agertzen da. (*H*)*ordonio*ren aztarrenik ez, beraz. Gainera, esplikatu gabe geratzen da hipotesi horrek berarekin lekarkeen *-rd- > -d-* bilakaera.

Ondorioz, nago *Tulonium* teonimo prerromatarra –eta ondorengo oronimoa– *Doroñuren* etimoa ere badela, *Toloño*rena den bezalaxe. Horrek, jakina, inplikaturiko luke Nafarroako Sonsierrako *Doroñu* herriaren izena Erdi Aroko birpopulatzearen ondorengo ez izatea, baizik eta garai prerromatarrean bertan sortua. *Tullonium* aldaera geminatua ere dokumentaturik dagoen arren, Francisco Villar-ek<sup>84</sup> forma bakuna du benetakotzat, hain zuzen Bastidan *Toloño* eman duelako eta, hartara, geminatua aldaera grafiko hutsa litzateke. *Toloño* lehenengoz dokumentaturik idoro dut, deitura gisa, 1162 urtean: “*Lope de Toloño filius comitis Diago Diaz de Blascori*”<sup>85</sup>.

*Tulonium* barduliarrekin lotu izan den teonimoa da. Baldin eta Nafarroako Sonsierra osoa barduliarren bizileku barik, gaurko Errioxa gehienera zabaltzen omen ziren beroiena izan balitz –egile batzuek defendatzen duten legez– proposatzen dudana hipotesiaren kaltetan litzateke.

<sup>82</sup> MITXELENA, Koldo (1985: 238-239): “*En préstamos es característico que las oclusivas sordas iniciales estén representadas por sonoras vascas. Como en esa posición los mismos sonidos vascos representan además a las oclusivas sonoras latinas, esto equivale a decir que en esas voces se ha neutralizado para esas consonantes la oposición sorda / sonora en inicial de palabra. La situación no es muy distinta por lo que respecta al léxico prelatino. Sirvan de ejemplo: denbora (ronc. témpora) < lat. tempora, [...] dūt(h)are (y titare) ‘dedal’ [...] No es raro que una voz vasca con oclusiva sonora inicial tenga a su lado una variante con sorda, aunque casi siempre en una misma localidad se emplea tan sólo una de ellas, sin vacilaciones: no hay ninguna regularidad, sino a lo sumo mayores o menores frecuencias, en su distribución geográfica. Las formas con sonora son desde luego las más características y, tratándose de préstamos antiguos, se hallan probablemente más extendidas*”.

MITXELENA, Koldo, *Ibidem*, 312 or.: “*Por un proceso de lenición semejante al sufrido por n, una l antigua ha pasado entre vocales a r [...] En préstamos los ejemplos de ese cambio no son escasos: [...] borondate < uoluntatem; vizc. goru < colus [...] El cambio aparece ya cumplido en los primeros documentos medievales, como puede verse por diversos nombres de población: Borinivar, año 1025 (CSM)*”.

<sup>83</sup> SÁNCHEZ GONZÁLEZ DE HERRERO, M<sup>a</sup> Nieves (1985: 175): “*Tal vez con el mismo antropónimo (‘teniendo en cuenta la alternancia Ordóniz/Dordóniz es muy posible que el antropónimo base sea un Hordonius, Ordonio) deba relacionarse el nombre de otro lugar treviñés, Doroño, [...] aunque esta relación parece bastante [...] dudosa*”.

<sup>84</sup> VILLAR, Francisco (2005: 476-477): “*Como en otros casos, encontramos para Tulonium formas alternativas con la escritura geminada (Tullonium), que tenemos también en Tullica. Me inclino a preferir como genuina la forma simple y considerar meramente gráfica la geminada sobre la base del resultado moderno de ese nombre que se encuentra en Toloño (Labastida, Álava). Con pequeñas variantes de escasa entidad el nombre se repite en el hidrónimo Tolonium, actual Tholon, afluente del Yonne cerca de Joigny. La forma de Tulonium es una tematización secundaria de un previo \*Tulon-, que a su vez es forma sufijada mediante -on-. La forma básica inicial es en consecuencia Tola (y/o cualquiera de sus variantes morfológicas Tole-, Tuli-, Tolo-, etc.)[...]*”.

<sup>85</sup> LIBANO, M<sup>a</sup> Angeles (1999: 327).

Guztiarekin ere, puntu honetan ez dago aho bateko iritzirik. Horrela, Claudio Sánchez Albornozek bere buruari itauntzen dio beroien iparreko muga Ebro ibaia ote zen ala, ordea, berau zeharkatu eta Toloño mendilerroaraino iristen ote zen. Bigarren aukeraren aldeko agertzen da, Ernesto García kritikatu duen argudioa baliatuz<sup>86</sup>. Azken finean, Sánchez Albornozen aburuak *‘presentismo’*-aren orbana dauka puntu honetan, gaur egun Errioxa izena Toloñoko mendikateraino hedatuta egoteari motiboa baiteritzo beroi prerromatarren muga ere horraino iristen zela uste izateko: *“Es dudoso si por el norte les servían de (límites) el Ebro o las sierras de Cantabria y Sonsierra. La circunstancia de que hoy abarque también la Rioja la zona situada al norte del Ebro hasta las sierras indicadas no deja de ser indicio favorable para llevar hasta ellas la raya entre várdulos y berones [...] Ocupaban, pues, los berones [...] la Rioja, sin que puedan precisarse con exactitud todos sus límites”*<sup>87</sup>. Armando Llanos arkeologoak<sup>88</sup> eta Ricardo Cierbidek<sup>89</sup> ere bat egin dute beroien muga Toloño mendilerroaraino daraman iritziarekin.

Nolanahi ere, Ernesto García irakaslearen ustea guztiz bestelakoa da: *“Creo que debe ser profundamente revisada la idea de que toda la Rioja Alavesa estuviera integrada en la agrupación de los Berones. Esta afirmación no está totalmente demostrada y sin embargo está tomando carta de naturaleza [...]”*<sup>90</sup>. Bere irudiko, seguru asko antzinatean ere Toloñoko mendilerroa ez zen igarogaitza alde batean zein bestean bizi ziren gizakientzat, eta uste izatekoa litzateke, beraz, bi isurialdeetan antzeko gizataldeak bizi zirela. Ondorioz, barduliarrek Bastida eta San Vicente de la Sonsierra inguruan Toloñoko mendilerroa zeharkatu eta hegoaldetik Ebro ibairaino hartzen zutela proposatzen du egileak: *“De hecho la inclusión de esta zona [...] entre los Berones necesitaría la existencia de una comunicación fluida a través del Ebro [...]. Basta rastrear el territorio para comprobar la existencia de pasos de comunicación habilitados entre una y otra parte de la Sierra de Toloño. Posiblemente los Berones tendrían por la zona occidental de la Rioja Alavesa una frontera mucho más sólida en el río Ebro, cuyo caudal en esta zona es abundante. [...]”*. Zera gaineratzen du Ernesto García bere hipotesiaren defentsan: *“De hecho al otro lado del río se encuentra la población de Briones, ‘civitate’ asimismo recogida en las crónicas de fines del IX, cuyo origen morfológico ha sido visto por algunos autores en el étnico de Berones”*.

Briones herriaren izena *Berones* jentiliziotik datorren ideia hau aspaldikoa da, eta egile askotxoren ahotan egon da –Claudio Sánchez Albornoz barne–, baina ez da zuzena. Ez du sustrai sendorik, eta haren kontra idatzi zuen jada-

<sup>86</sup> GARCÍA FERNÁNDEZ, Ernesto (1992: 27): *“Incluso algunos historiadores escribieron que la propia extensión del nombre de Rioja en la actualidad a una y otra parte del río debe ser un indicador de dicha realidad prerromana”*.

<sup>87</sup> SÁNCHEZ ALBORNOZ, Claudio, *op. cit.*, 19 or.

<sup>88</sup> LLANOS ORTIZ DE LANDALUZE, Armando (1992): *“Lo que sí aparece claro es que la división orográfica de las alineaciones de las sierras de Cantabria/Toloño separaron los Berones de Caristios y Várdulos”*.

<sup>89</sup> CIERBIDE, Ricardo (2000: 75): *“[...] las sierras de Toloño y de Cantabria serían las mugas divisorias entre vascos caristios y celtas berones. La prueba evidente de ello la tenemos en el importante yacimiento prehistórico de La Hoya entre Laguardia y Elvillar, de la Edad del Hierro, habitado por indoeuropeos, y en el orónimo Toloño, objeto, al parecer, de adoración por las gentes prerromanas de la zona [...]”*.

<sup>90</sup> GARCÍA FERNÁNDEZ, Ernesto, *op. cit.*, 27 or.

nik Antonio Tovar-ek (1989). Berriki ere, Francisco Villar-ek<sup>91</sup> eta Álvaro Galmés de Fuentesek<sup>92</sup> gogorarazi dute egiazko etimologia.

Ernesto Garcíaek bere hipotesia eraikitzeko darabiltzan beste argudioetako bat ekarriko dut hona ikergai honekin duen erlazio estuagatik: “*es conocida con el nombre de ‘Sierra de Toloño’, es decir, se trata nada menos que de una de las divinidades de los Várdulos[...] ¿Acaso no es lógico que existiendo unos montes dedicados a un Dios várdulo, la comunidad que reside junto a él forme parte de la misma cultura religiosa? [...]*”<sup>93</sup>.

Gatozen beste behin *Doroñu Tullonium*-etik bilakatutako forma datekeen hipotesira. Beharbada Trebiñu aldeko Doroñu herriaren existentzia bera, Toloño mendilerrotik aski urrun kokatua, duda-itzala izan daiteke aurreko argudioen gainean. Hala ere, adierazi beharra dago Doroñu hau ere mendi baten magalean datzala eta, dokumentazioaren arabera, badagoela zantzurik bere izenak lehengo denboretan gaur baino eremu zabalagoa hartzen zuela uste izateko. Izan ere, garbiro agertzen da, XV mendean, Gasteiz aldeko hiztunek *Doroñu* esaten ziotela herriaren gaineko mendateari eta agian baita mendilerroari ere: “[...] *una/ pieça de Ochoa López de Berrosteguieta, la qual es a sullco del dicho camino que suben las almajas a la sierra el al puerto de Doroñu, [...]*”<sup>94</sup>. Antzeko datu gehiago bilduz gero pentsa genezake, Nafarroako Sionsierako kasuan bezala Trebiñu aldean ere, Doroñu herriak izena hartua dukeela ondoko oronimotik.

Hona ailegaturik, jakitun naiz datozen paragrafoetan alderdi linguistikoko hutsetik aldentzera noala, labainkor zaizkidan arkeologiaren eta historiaren bideetan barneratuta. Zuhurra izan nahi nuke eta alde zurretik ene mugak eta gabeziak aitortu, baina aldi berean senak ematen dit ez diodala muzin egin behar pare bat gogoeta agertzeari, zientzia horietan aditu direnen iritzira uzteko asmoarekin.

### Gogoeta bat Antoninoren ibilbideko *Tullonium* ‘mansio’-aren harira

Jakina denez, Ptolomeok eta Antoninok bere ibilbidean *Tullonium* izeneko ‘mansio’ edo ‘civitas’ bardularra aipatzen dute. Gaur eguneko uste orokorra da, XX mendearen bigarren erdian gailendu ostean, *Tullonium* Dulantzin zegoela. Kokapen hori honako egileek hobetsi dute, besteren arte-

<sup>91</sup> VILLAR, Francisco (1995: 185): “*La palabra brig- [...] tenía un uso apelativo con el sentido de ‘altura, castillo’ que ha dejado también huella en la toponimia [...] Del tema bri(g)- con la sufijación latina corriente (ac. \*Brionem) tenemos como herederos modernos los varios Brión gallegos, todos ellos en la Coruña [...] En menor medida se encuentra esta clase de derivados también fuera de Galicia. Así tenemos Briones (Logroño) y Briongos (de \*Brionicos, en Ciruelos de Cervera, Burgos)*”.

<sup>92</sup> GÁLMÉS DE FUENTES, Álvaro (2000: 35): “*Nuestro topónimo deriva de brigo [...], de la palabra celta, que significa ‘ciudad’. Al lado de las formas con briga, existen otras formas derivadas de brigo: Lúbrigos (Vila Real en Portugal), Lóbrigo (La Coruña, Pontevedra), Malóbrigo (Orense), etc. Para la pérdida de -g- téngase en cuenta formas del tipo: Calambria (Viseu, en Portugal), Donobria (La Coruña), Sanabria (Zamora, Badajoz), Brias (Soria, Huesca), Brea (La Coruña, Zaragoza, Guadalajara), etc. En nuestro caso, finalmente, la forma aparece sufijada con -on, y en la toponimia este sufijo suele representar una variante en diminutivo: Arlanzón, diminutivo de Arlanza, como nombre de un afluente de este último río de Burgos, Ebrón, río de Teruel en contraste con el Ebro [...] El resultado final Briones no representa un plural, sino otra forma de la declinación celta. Para una forma sin -s final téngase en cuenta Brión, varios pueblos de Galicia [...]*”.

<sup>93</sup> GARCÍA FERNÁNDEZ, Ernesto, *op. cit.*, 25 or.

<sup>94</sup> RAMOS REMEDIOS, Emiliana (1999: 239-240).

an: Juan Antonio Llorente (1806), Pascual Madoz (1845), Ladislao de Velasco (1880), Julio Altadill (1928) eta María Lourdes Albertos (1984). Azken urteotan, badirudi behin-betiko egiazat hartzen joan izan dela zeren zenbait historialari hipotesi hutsa dena era biribilean baieztatzen hasita baitaude, dudari zirrikiturik txikiena ere utzi gabe. María de los Ángeles Magallónnek, kasurako, horrela dio Antoninoren ibilbideaz ari delarik: “*Prosigue hacia Ascarza, Argandoña, Alegría (Dulantzi), en la que se localiza la mansión de Tullonio*”<sup>95</sup>.

Guztiarekin ere, gogoratzea komeni da, *Tollonium*-en kokapena dela-eta osterantzeko iritzirik izan dela, eta ez aho batekorik: Francisco Coellok (1875), Ricardo Becerro de Bengoak (1877) eta Federico Baraibarrek (1893) Askartza Gasteiz proposatu zuten eta Antonio Blázquezek, Claudio Sánchez Albornozekin elkarlanean egindako lan batean (1918), Gasteiztik hurbil kokatu zuen. Urte askotxo geroago, Sánchez Albornozek, Dulantziko kokapena lehenetsita ere, Antonio Blázquezek aburua ere ez du guztiz baztertzeko: “*Dentro de las fronteras señaladas a Vardulia se alzaban, en efecto, las ciudades de Tullonium, situada de ordinario en Alegría y por Blázquez cerca de Vitoria [...]*”<sup>96</sup>.

*Tullonium* Dulantzirekin identifikatzeko erabili izan diren arrazoiak hirutara laburbildu daitezke<sup>97</sup>. Lehenik, bertan kokaleku erromatar bat aurkitu da, Enaioko gazteluaren iparraldean, bostehun metrotara eta, gainera, aipatutako aztarnategi erromatarra Burdin Aroko herriska batetik gertu dago. Bigarrenez, kokaleku erromatar hori *Asturicatik Burdigalaxa* zihoan bidean dago. Hirugarrenez, aztarren arkeologiko hauezaz gainera, 1799 urtean bertan aurkitu izan zen *Tullonius*-i eskainitako botozko idazkun bat: S. SEVER / TULLONIO / V.S.L.M. Era berean, Antoninoren ibilbidean aipatzen den aurreko ‘civitas’-a, *Suestatium* alegia, hurbil egotea aldeko argudio legez erabili izan da. Nolanahi ere, ez da ahaztu behar kokapen honetan ere adituek ez dutela adostasunik erdietsi. Horrela, egile batzuek Zuhatzu Gasteizekin identifikatu izan dute, besteren batek Armentiarekin eta badago Arabako Iruñarekin identifikatu duenik<sup>98</sup>.

Honenbestez, Trebiñu aldeko iparraldean, *Doroñu* toponimoa lehengo denboretan Arabako Lautadarekin mugakide den tokiraino zabaltzen zela frogatzerik balego, aintzat hartzeko datua litzateke Antoninoren ibilbideko *Tullonium*-en kokapen geografikoa berrikuste aldera, baldin eta, hemen proposatu bezala, *Doroñu Tullonium*-etik bilakatua bada. Kasu horretan agian *Tullonium* ‘mansio’-a Berroztegiataldean egon ote litekeen hausnartzea komeniko litzateke. Gainera, baldin eta inguru horretatik hurbil samar Burdin Aroko gotorleku bat balego, *Tullonium* bezalako ‘mansio’ baten aurrekari izan liteke, Dulantziko Enaion gertatzen denaren antzera.

<sup>95</sup> MAGALLÓN BOTAYA, M<sup>a</sup> de los Ángeles (1997).

<sup>96</sup> SÁNCHEZ ALBORNOZ, Claudio, *op. cit.*, 22 or.

<sup>97</sup> SANTOS, J. & EMBORUJO, A. & ORTIZ DE URBINA, E. (1992).

<sup>98</sup> ALBERTOS, M<sup>a</sup> Lourdes, *op. cit.*, 171 or.: “*A favor de esta identificación con Iruña pueden aducirse: 1º que es la ciudad alavesa antigua que más fuentes literarias mencionan [...]; 2º que las distancias del Itinerario de Antonino pueden bien aplicarse a Iruña [...]; que sólo suele mencionarse la procedencia de los individuos en las inscripciones cuando éstos son de ciudades importantes [...] y tenemos tres veces mencionada la procedencia Suestatiensis [...]*”.

### Gogoeta bat Doroñuko mendateraino hedatzen den Karasta toponimoaz.

Trebiñu aldeko Doroñu herrian mendialde zabala hartzen duen *Karasta* toponimoa bizirik dago gaur egun. Gasteiz inguruko Berroztegieta herritik bereizten duen mendilerroaren goietaraino ailegatzen da aipaturiko toponimoa<sup>99</sup>. Etimologiari dagokionez, M<sup>a</sup> Lourdes Albertosek, panilirismoaren menpeko, kokagune historikoa Balkandar Penintsulan duen iliriera hizkuntzaren bitartez argitu nahi izan zuen: “*Respecto a este sufijo (-sta-) señalemos que puede ser idéntico al ilirio -sto-, -ste-, frecuente en la onomástica de aquella región o bien tener un valor superlativo*”<sup>100</sup>.

Ezagun denez, egile horrek Arabako historia linguistikoan euskararen presentzia alboratu eta sistematikoki indoeuroparraren bitartez esplikatzera jotzen zuelarik, Mitxelenaren haserrea piztu zuen: “[...] *se habla de un lugar ‘no lejos de Doroño’, donde ‘también hay restos indoeuropeos’, observación que no está aislada y que me inspira fuertes reparos [...] donde no hay textos ni hay nombres, sólo por apriorismo temerario se pueden establecer conclusiones sobre la lengua a partir de enseres y aperos. En este contexto, no hay puchero que pueda llamarse indoeuropeo; no hay más indoeuropeo que una lengua o la persona que lo emplea*”<sup>101</sup>. Mitxelenak Albertosi emandako erantzunean Doroñuko *Karasta* aipatzen du, baita Arabako beste bi homonimo ere. Bata Caicedo-Sopeñako aztarnategi ezaguna da eta bestea 1849an Tresponden dokumentatzen den *Garasta* toponimoa, Iruña-Veleiatik zertxobait iparraldera, gaur egun *Garrasta* formarekin dirauena. Toponimo hauek guztiak Mitxelenak (*Karasta/Garasta* < \**Crasta* < *Castra*) bilakaeraren bitartez esplikatu izan ditu: “*Una explicación del nombre, nada forzada para esa zona, se me ocurrió, no sé si el primero, hace ya muchos años: que se trata de Castra, de donde \*Crasta por metátesis y, con vocal anaptíctica, Carasta, documentado ya en 1025 [...] El supuesto de que Carasta fuera en sus orígenes un apelativo está confirmado por su propia repetición [...] ya que hay otro Carasta ‘término montuoso de Doroño’ en Álava, más un Garasta, documentado en 1849 ‘término montuoso de Trespuentes’: parece haber, además, una curiosa similitud en cuanto a la configuración del terreno en todos los casos. Garasta sería, huelga decirlo, la forma vasca esperada de ese nombre, con la sonorización regular de la oclusiva inicial*”.

Horrelako etimo batetik espero izatekoa denez, arkeologiak Mitxelenaren hipotesia egiaztatua du, Caicedo-Sopeñako *Carasta* inguruan jatorriz prerromatarra den aztarnategi bat aurkitu delako: “[...] *En Carasta [...] el antiguo hábitat en altura sigue ocupado en el alto imperio, llegando hasta principios del siglo II d. C.*”<sup>102</sup> *Carasta* hau Erdi Aroan herri izandakoa da 1025eko dokumentu ezagunak dioenez: “*Ossingani: [...] Billa vizana, una rega. Lunantu, una rega. Ripa, una rega. Torrisu, una rega. Carasta, una rega*”<sup>103</sup>.

Trespondeko *Garasta* eta Doroñuko *Karasta*, ordea, ez daude jasota Arabako Karta Arkeologikoaren edizioetan. Ez da sekula indusketarik egin bertan. Aurtengo abuztuaren hamairuan Doroñuko *Karasta* bisitatu dugu, ‘in situ’ eremua ezagutzearren. Tontorreraino igota, ipar eta hego isurialdeak

<sup>99</sup> GONZÁLEZ SALAZAR, José Antonio (1985: 23).

<sup>100</sup> ALBERTOS, M<sup>a</sup> Lourdes, *op. cit.*, 157 or.

<sup>101</sup> MITXELENA, Koldo (1972).

<sup>102</sup> GIL ZUBILLAGA, Eliseo (1997: 27).

<sup>103</sup> UBIETO ARTETA, Antonio, *op. cit.*, 180 dok.

berезitzen diren tokian, zabalgunе bat atzeman dugu, haritz eta arteek egiten duten baso itxiaren artean. Zabalgunеak terraza naturalak dauzka iparralde-  
ra nahiz hegoaldera begira, antza denez balizko gotorleku baten defentsa egi-  
teko nahikoak liratekeenak. Hego-isurialdean beste terraza bat dago, natura-  
la ez dirudiena, beti ere miatze zehatzago baten zain.

## BIBLIOGRAFIA

- ÁLAMO, Juan del (1950), *Colección Diplomática de San Salvador de Oña (822-1284)*.
- ALBERTOS, M<sup>a</sup> Lourdes (1970), “Álava prerromana y romana. Estudio lingüístico”, in *Estudios de Arqueología Alavesa*, 4.
- CANTERA MONTENEGRO, Enrique (1986), “Notas para un estudio de la geografía histórica de la Rioja en la Edad Media: núcleos de población en la Rioja Alta a mediados del siglo XIII”, in *En la España Medieval*, v.
- CARO BAROJA, Julio (1945), *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*.
- (1983), “Álava del siglo VIII al siglo XII: lucha de poderes y horizontes enemigos”, in *Historia General del País Vasco*.
- CIERBIDE, Ricardo (2000), “Elciego y la Rioja alavesa. Intento de explicación lingüística”, in *FLV*, 83.
- COROMINES, Joan (1971), “Nuevas fuentes del conocimiento del alto-aragonés y del catalán occidental pirenaico”, in *Tópica Hespérica*, I.
- DE LAS HERAS, M<sup>a</sup> de los Ángeles & TOJAL, Ildefonso (1995), *El alfoz de San Vicente de la Sonsierra*.
- DÍAZ BODEGAS, Pablo (prestatazaila) (1998), *Libro de visita del licenciado Martín Gil*.
- DÍEZ MELCÓN, Gonzalo (1957), *Apellidos castellano-leoneses*.
- ESTEPA DÍEZ, Carlos (1984), “El alfoz castellano en los siglos IX al XII”, in *En la España Medieval*, 4.
- FELONES MORRÁS, Román (1982), “Contribución al estudio de la iglesia navarra en el siglo XIII: el libro del diezmo de 1268”, in *Príncipe de Viana*, 166-167 zk.
- FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, Luis Javier (1985), “El dominio alavés de San Salvador de Leire”, in *La formación de Álava*.
- (1993), *Leire, un señorío monástico en Navarra (siglos IX-XIX)*.
- GALMÉS DE FUENTES, Álvaro (2000), *Los topónimos: sus blasones y trofeos (la toponimia mítica)*.
- GARCÍA FERNÁNDEZ, Ernesto & LÓPEZ LÓPEZ DE ULLIBARRI, Félix & DÍAZ DE DURANA ORTIZ DE URBINA, José Ramón (1990), *Labastida en la Edad Media: poblamiento y organización político administrativa (s. X-XIII)*.
- GARCÍA FERNÁNDEZ, Ernesto (1992), “Tabuerniga: reflexiones e hipótesis sobre una ‘civitate’ altomedieval alavesa”, in *Espacio, Tiempo y Forma, Historia Medieval*, v.
- (1998), *La villa de Peñacerrada y sus aldeas en la Edad Media*.
- GIL FERNÁNDEZ, J. & MORALEJO, J. L. & RUIZ DE LA PEÑA, J. I. (1985), *Crónicas asturianas*.
- GIL ZUBILLAGA, Eliseo (1997), “El poblamiento en el territorio alavés en época romana”, in *Isturitz*, 8.
- GONZÁLEZ MINGUEZ, César (1983), “De la fundación de las villas a la formación de la provincia”, in *Álava en sus manos*.
- GONZÁLEZ SALAZAR, José Antonio (1985), *Cuadernos de Toponimia 1. Toponimia menor de Treviño*.
- (1986a), *Cuadernos de Toponimia 2. Toponimia de la Montaña Alavesa*.
- (1986b), *Cuadernos de Toponimia 3. Toponimia menor de la Rioja alavesa*.
- (1988), *Cuadernos de Toponimia 5. Toponimia menor de Vitoria-Gasteiz*.
- (1989), *Cuadernos de Toponimia 6. Toponimia menor de Añana*.
- GOVANTES, Ángel Casimiro de (1846), *Diccionario geográfico-histórico de España. Comprende la Rioja o toda la Provincia de Logroño y algunos pueblos de Burgos*.
- LANDÁZURI, Joaquín José de (1921), *Treviño Ilustrado*.
- LEDESMA RUBIO, M<sup>a</sup> Luisa (1989), *Cartulario de San Millán de la Cogolla (1076-1200)*.

- LÍBANO ZUMALACÁRREGUI, Ángeles (1999), “Toponimia Medieval en el País Vasco”, *Onomasticon Vasconiae*, 20.
- (2004), *I Jornadas de Lingüística Vasco-Románica (Bilbao, 27-29 de octubre de 2004)*.
- LÓPEZ DE GUEREÑU, Gerardo (1962), *Álava, solar de arte y de fe*.
- (1989), “Toponimia Alavesa”, *Onomasticon Vasconiae*, 5.
- LLANOS ORTIZ DE LANDALUZE, Armando (1992), “Conformación de las etnias prerromanas en Álava, Bizkaia y Gipuzkoa”, in *Complutum*, 2-3.
- MAGALLÓN BOTAYA, M<sup>a</sup> de los Ángeles (1997), “La red viaria romana en el País Vasco”, in *Isturitz*, 8.
- MARTÍN DUQUE, Ángel J. (1983), *Documentación medieval de Leire*.
- MARTÍNEZ DÍEZ, Gonzalo (1983), *Génesis histórica de la Provincia de Burgos y sus divisiones administrativas*.
- MITXELENA, Koldo (1972), “Nota marginal sobre la huella latina en la lengua vasca”, in *FLV*, IV.
- (1985), *Fonética Histórica Vasca*, 3. edizioa.
- QUIRÓS CASTILLO, Juan Antonio (2006), “La génesis del paisaje medieval en Álava: la formación de la red aldeana”, in *Arqueología y Territorio Medieval*, 13.1.
- QUIRÓS CASTILLO, Juan Antonio & VIGIL ESCALERA GUIRADO, Alfonso (inprimatzen), “La primitiva red aldeana altomedieval: arqueología rural del campesinado entre Toledo y *Velegia Alabense* entre los siglos V y X”, in *Archeologia Medievale*.
- RAMOS REMEDIOS, Emiliana (1999), *El apeo de Vitoria y su jurisdicción a fines del siglo XV. El apeo de 1481-1486 (traslado de 1526)*, 1.
- RODRÍGUEZ L. DE LAMA, Ildefonso (1992), *Colección diplomática medieval de la Rioja*, II, *Documentos (923-1168)*.
- (1979), *Colección diplomática medieval de la Rioja*, III, *Documentos (1168-1225)*.
- (1989), *Colección diplomática medieval de la Rioja*, IV, *Documentos siglo XIII*.
- RUIZ DE LÓIZAGA, Saturnino (1997), *Documentación medieval de la diócesis de Vitoria en el Archivo Vaticano (Siglos XIV-XV)*.
- SALABERRI ZARATIEGI, Patxi (2003), *Euskal deiturategia. Patronimia*.
- SÁNCHEZ ALBORNOZ, Claudio (1976), *Vascos y navarros en su primera historia*.
- SÁNCHEZ GONZÁLEZ DE HERRERO, M<sup>a</sup> Nieves (1985), *El habla y la toponimia de Lapuebla de Arganzón y el Condado de Treviño*.
- SANTOS, J. & EMBORUJO, A. & ORTIZ DE URBINA, E. (1992), “Reconstrucción paleogeográfica de autrigones, caristios y várdulos”, in *Isturitz*, 8.
- SEVILLA RODRÍGUEZ, Martín (1980), *Toponimia de origen indoeuropeo prelatino en Asturias*, Instituto de Estudios Asturianos.
- UBIETO, Antonio (1976), *Cartulario de San Millán de la Cogolla (875-1076)*.
- VELILLA CÓRDOBA, Salvador (2006), “Ubicación de topónimos medievales en la sonsierra de Navarra”, in *Sancho el Sabio*, 24.
- VILLAR, Francisco (2000), *Indoeuropeos y no indoeuropeos en la Hispania prerromana*, Acta Salmanticensia 277.
- (2005), “Indoeuropeos y euskaldunes en el País Vasco y Navarra. Genes, lenguas y topónimos”, in *Vascos, celtas e indoeuropeos. Genes y lenguas*, Acta Salmanticensia 307.

## LABURPENEA

### *Trebiñu aldeko homonimia-kasu batzuk aztergai*

Artikulu honetan geografiaren luze-zabalean homonimoak dauzkaten Trebiñu aldeko herri batzuen izenak izan ditut ikergai. Izen bera partekatzeak noiz edo noiz adituen lanetan eragin izan dituen zenbait nahaste arakatzea izan dut helburu, besteak beste Erdi Aroko kartularioetako informazioa bilduz. Bereziki arreta jarri dut Trebiñu aldeko Doroñu eta Pangua herriek Toloñoko mendilerroaren hegoaldean, Nafarroako Sonsierra zeritzan eskualdean, izenkide zeuzkaten herri hustuetan, eta historiagileen iritzi nagusiak biltzen ahalegindu naiz, birpopulatzetoponimoak ala, ordea, inguru hartan era autonomoan sortuak ote diren gogoeta egite aldera. *Doroñu* izenari dagokionez, balegoke zantzu nahikorik *Tv(l)lonivm* teonimoaren euskal bilakaera ote den galdera plazaratzeko. Hainbatetan bezala, jakintza-arlo desberdinetako lankidetzaren beharrean gaude erantzun beteagoa erdietsiko bada.

## RESUMEN

*Algunos casos de homonimia de la zona de Treviño como objeto de estudio*

En este artículo he tenido como objeto de estudio los nombres de algunos pueblos de la zona de Treviño con homónimos en otras zonas geográficas. He querido examinar las confusiones que en ocasiones ha generado entre los especialistas el hecho de que distintas poblaciones compartan el mismo nombre, y para ello me he valido, entre otras fuentes, de la información recogida en los cartularios medievales. Me he centrado especialmente en los despoblados homónimos de los pueblos treviñeses de Doroño y Pangua que existieron en la parte meridional de la sierra de Toloño, en la comarca llamada la Sonsierra de Navarra, y he intentado recoger las opiniones principales de los historiadores, a fin de reflexionar sobre la posibilidad de que sean topónimos de repoblación o, por el contrario, fueran creados allí de manera autónoma. En lo referente al nombre *Doroñu*, considero que hay indicios suficientes para preguntarse si quizá sea la evolución en lengua vasca del teónimo *Tv(i)lonivm*. Como en tantas ocasiones, solamente la colaboración interdisciplinar conseguirá una respuesta más esclarecedora.

## RÉSUMÉ

*Certains cas d'homonymie dans la zone de Treviño comme objet d'étude*

L'objet de cet article a été l'étude des noms de certains villages de la zone de Treviño avec des homonymes dans d'autres zones géographiques. J'ai voulu examiner les confusions, créées parfois chez les spécialistes, par le fait que différentes localités portent le même nom, et je me suis servi pour cela de l'information recueillie dans les cartulaires du Moyen-Âge, entre autres. J'ai voulu analyser spécialement les dépeuplés homonymes des villages de la zone de Treviño, comme Doroño et Pangua qui ont existé dans la zone méridionale de la Sierra de Toloño, dans la contrée appelée la Sonsierra de Navarre, et j'ai essayé de recueillir les principales opinions des historiens, afin de vérifier s'il s'agit de toponymes de repeuplement ou, au contraire, s'ils ont été créés là-bas de façon autonome. Pour ce qui est du nom de *Doroñu*, je pense qu'il y a des indices suffisants pour nous faire penser qu'il peut s'agir de l'évolution du théonyme *Tv(i)lonivm* dans la langue basque. Comme il arrive souvent, ce n'est que grâce à une collaboration interdisciplinaire que l'on obtiendra une réponse plus éclaircissante.

## ABSTRACT

*Some cases of homonymy from the area of Treviño as a focus of study*

In this article, I focussed my study on villages from the Treviño area with homonyms in other geographical areas. I wished to look into the confusion generated at times among specialists due to the fact that different settlements share the same name. To this end, I used, among other sources, the information given in mediaeval cartularies. I particularly centred my attention on the abandoned villages of Doroño and Pangua, sited on the southern side of the *Sierra de Toloño*, in the district known as the *Sonsierra de Navarra*, and which have homonyms in Treviño, trying to gather the main opinions of historians in order to reflect upon whether they are toponyms of repopulation or, on the contrary, came about independently. Regarding the name of *Doroñu*, I believe there are sufficient indications to consider that it is perhaps the evolution in Basque of the theonym *Tv(i)lonivm*. As on so many other occasions, only interdisciplinary collaboration shall provide us with a more illuminating answer.